



MUGARRI



OIARTZUNGO SAN ESTEBAN PARROKIAKO ERRETAULAK
LOS RETABLOS DE LA PARROQUIA DE SAN ESTEBAN DE OIARTZUN

**MAITE BARRIO OLANO
ION BERASAIN SALVARREDI**

MAITE BARRIO OLANO, Artearen Historian lizentziatua Parisko IV Sorbona Unibertsitatean. Ondoren, Florentziako Universidad Internazionale dell'Arte unibertsitatean diplomatu zen zaharberritzean. Pinturan eta eskulturan espezializatu zen Bruselako Ondare Artistikoaren Institutu Errealean.

ION BERASAIN SALVARREDI, Madrilgo Unibertsitate Autonomoan lizentziatua. Zaharberritzeari egokitutako arte aplikatuetan graduatua Arte-lanak Zaharberritzeko ikastetxean. Diplomatura eskuratu zuen Florentziako Università Internazionale dell'Arte unibertsitatean. Aldi berean, hormako pinturen zaharberritzea eta teknikak kurtsoa egin zuen Pratoko Udaleko eskolan, Tintori irakaslearen Laboratorioan (Italia).

Biak Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren bekadunak izan dira. Espainian eta Italian hasi ziren lan profesionalak egiten. 1987. urtean Gipuzkoako Foru Aldundiaren Zaharberritze tailerlean lanean hasi ziren, Artelekun. Leku horretan Gipuzkoako zaharberritzearen arazoarekin harreman zuzena izaten dute. 1989. urtean Albayalde sortu zuten, artelanak zaharberritzeko eta kontserbatzeko enpresa. Orain ere, kontserbazioko eta ikerketako lan horrekin jarraitzen dute. 1990. urtean Gipuzkoako Foru Aldundiko Zaharberritze Taileraz arduratu ziren, urtebetez. Egindako lanen artean nabarmenenak honakoak dira: Argantzuko La Pueblako erretaula nagusia (Trebiño), Hernaniko San Joan Bataiatzailearen parrokiako erretaula nagusia eta alboetakoa, Gabiriako Santa Maria, Larraulgo San Estebango erretaula eta Gesaltzako erretaula (Araba). Horietaz gain, hainbat oinarritan egindako pinturak eta tailu polikromatuak zaharberritu dituzte (oihala, taula, horma).

Zaharberritzaileen eta kontserbatzaileen elkarreketako kideak dira (ICOM, IIC, ...) Hainbat ikerketa eta artikulu argitaratu dituzte: AA.VV. *Manuel Duque, una visión retrospectiva. 1943-1997*. Sabadell, 1998; AA.VV. *El Retablo Renacentista de Bidaurreta*. DFG. Donostia, 1991; *Tratamiento informático de las encuestas sobre técnicas y criterios de restauración y conservación de artistas contemporáneos*. Araba, 1991; *Eliminación de la Policromía en una escultura: La Virgen del Rosario de Julio Beobide* Bartzelona 1994; *Santiago peregrino a caballo*. Donostia, 1994; *Aproximación a la policromía del retablo de San Antón*. Donostia 1998; *Agustín de Conde, policromador del Retablo de San Juan Bautista de Hernani*. Donostia 2000; *La polychromie du retable de Saint Jean Baptiste de Hernani*, Gipuzkoa, Espagne. Contrat et analyse. Lyon, 1999. *La restauración del Retablo Mayor de la Parroquia de San Esteban de Oiartzun*. Oiartzun, 1998; *Los Retablos Laterales de la Parroquia de San Esteban de Oiartzun*. Oiartzun 1999; *El Retablo de San Nicolás de Bari*. Oiartzun, 2000.

**OIARTZUNGO SAN ESTEBAN
PARROKIAKO ERRETAULAK**

***LOS RETABLOS DE LA PARROQUIA
DE SAN ESTEBAN DE OIARTZUN***

**MAITE BARRIO OLANO
ION BERASAIN SALVARREDI**

OIARTZUNGO SAN ESTEBAN
PARROKIAKO ERRETAULAK

LOS RETABLOS DE LA PARROQUIA
DE SAN ESTEBAN DE OIARTZUN

MAITE BARRIO OLANO
JON BARRAIN SALTARREDI

- ◀ Azaleko argazkia:
Parrokiako erretaula nagusia.
Retablo mayor de la parroquia.
Argazkia / Foto: *Alberto Martinena.*

Lehen argitalpena: 2001. urtea

Ale kopurua: 500

Argitaratzailea: Oiartzungo Udala, Kultura Batzordea

Itzulpena: e3 Komunikazio Zerbitzuak (Ttakun Kultur Elkarte)

Marrazki eta argazkiak: Albayalde, S.L.

ISBN 84-88917-09-0

L.G. SS - 701 / 2001

Inprimategia: Imprelan

AGURRA

Kultura Batzordeak 1994. urtean ekin zion Mugarri Sailaren bideari: Oiarzungo berezitasun sozio-kulturalak liburu-bilduma batean jasotzen joateko ideari interesgarri iritzi zizaion orduan.

*Eta poliki-poliki zortzi liburu argitaratu ditugu eta ia konturatu gabe XXI. mendean sartu gara. Aurtengo gaia, Oiarzungo Done Eztebe Parrokiaren erretaulen zaharberritze-lana da eta berari dagokio ohorea: hauxe izango da mende honetako lehen **Mugarri-a**.*

Gure herrian, eta azken urte hauetan behintzat, oso errotuta dugu kultura-ondarea eta arte-ondarea sustatzeko ohitura. Baditu Oiarzungek maila horretan ere aberastasun aipagarriak. Guk ez ezik, adituek ere aitortzen dute hori eta Jaurilaritzak ere izendatu berri du aurten Done Eztebe Elizako Erretaula Nagusia ondare kultural gisa, monumentu kategoriaz.

Badu gure herriko Elizak ere beste berezitasun eta aberastasun bat: historian zehar, Oiarzungo herria Eliza honen jabea izatea alegia. Herri gehienetan, bertako Elizak Gotzaitegiaren edota partikularren jabetzakoak izan dira edo dira. Gure herriko historiak erakusten du Done Eztebe Parrokia, Herriak osatutako Patronatuaren gidaritzapean izan dela antolatua, herria Elizaren jabe izanik.

Beste herri batzuetan bezala, Elizak gizarte oihartzun handia du bertan burutzen diren ospakizunengatik. Gehienak noski erlijio-ospakizunak, bainan bestelako ekitaldirik ere onartu izan du Done Eztebe Eliza dotoreak.

Batez ere herritarrek egindako ekarpenei esker, Foru Aldundiak eta Oiarzungo Udalak jarritako diru-laguntzekin, bikain moldatu dira Elizako lan-ba-

tzordekoak zaharberritzea burutzen joateko. Eskerrak horiei denei eta baita ere Albayaldekoiei, Erretaula hauetan egin duten lanarengatik, orain liburu honetan jasotzen duguna betirako.

Esan dugu Herriak bere kulturaren eta bere artearen jabe izan behar duela. Ekimen publikoek (herritarrek eta erakundeek) egindako esfortzuei esker, egoera kaskarrean zegoen kultur ondare garrantzitsua biziberritu da. Emaitza bikainak jasotzen ari gara Oiartzunen egindako lanari esker. Emaitza onak ematen ari da Mugarri baita ere, eta hurrengoan ere gure herriak eman dezala gairik eta fruiturik kulturaren alorrean denei eskaintzeko.



XABIER IRAGORRI
ALKATEA

ZORIONAK, OIARTZUN

Bejondeiola Oiartzungo herriari! Horixe pentsatu nuen hona bikario etorri eta eliza berritzearen nondik norakoak jakiten hasi nintzenean. Izan ere, ordurako lanik larrienak eginak ziren, 200 eta gehiago milioi gastatuak ziren elizako obretan eta diru-multzo horren zatirik handiena jende xumeak emandakoa zen eta da. Azken urte hauetan herri eta auzo askotan ari dira beren elizak, handiak eta txikiak zaharberritzen eta gehienetan jendearen patrika urritik atera da dirua. Eta Oiartzun ez da atzera geratu egonkizun horietan ere.

Elizaren jabea, herria

Gure herriko paper zaharrak miatzen aritu direnek ez diote aurkitu eliza eder honi jaberik. Joandako mendeetan, pertsona partikular, haundizki, noble eta horrelakoek egin izan zituzten askotan elizak eta beren jabetzako izan dituztera denboraldi luzetan. Gotzaindegiak eta parrokiak ere saiatzzen ziren parroki elizak eraikitzen eta horrelakoetan horiek azaltzen dira paperetan elizaren jabe gisa. Ez dirudi gure eliza hau bide horietatik eraikia denik.

Oiartzungo parroki eliza, oraingoa bezala honen aurretik zena, herriaren arduraz eta diruz jaso da. Izan ziren, nola ez, herrian «nor zirenak» diru-apur bat horretarako emanak izango ziren, baina orduan ere gehiena herri honetako baserritar eta esku langileek eman zuten, beren kopetako izerdi gaziaz soska-soska patrikaratutakoa asmo horrekin eskainiz. Garai haietan horrela egiten baitziren gehienetan gauzak, herriko etxe-jabeek bildu eta herriko beharrak aztertu eta komeni ziren erabakiak berek hartzen zituzten. Horregatik dira hain goraiatuak gure zaharren jokaera demokratikoak.

Oiartzungo historia idatzi dutenek argi eta garbi azaltzen dute elizako gorabeherak ere horrelaxe erabakitzen zirela. Beren-berena zuten eliza eta ez zeukaten inori saltzeko, ezta edozeinen eskuetan uzteko ere. Poliki-poliki beharrak ikusi eta, dirua sortu ahalean, saiatu ziren eliza eraiki eta apaintzen. Horrela iritsi da gure garai honetara zalantzarik gabe herri honetako eraikuntza ederrena den gure parroki eliza.

Patronatua

Mendeen joanean ez du inork ukatu eliza hau herriarena denik, guztiena alegia. Horregatik ez da paperetan jaberik eta nagusirik ageri, oiartzuar denak dira gabe.

FELICIDADES, OIARTZUN

¡Enhorabuena al pueblo de Oiartzun! Eso pensé precisamente cuando vine aquí de párroco y empecé a conocer los pormenores de la renovación de la iglesia, ya que para entonces estaban acabadas las obras más importantes; se habían gastado más de 200 millones en las obras de la iglesia y el mayor montante pecuniario lo había desembolsado y lo desembolsa el pueblo llano. Ciertamente, estos últimos años están restaurando sus iglesias, sean grandes o pequeñas, en muchos municipios y barrios, y, en la mayoría de los casos el dinero procede del exiguo bolsillo de la gente. Oiartzun, evidentemente, tampoco se ha quedado atrás en ese cometido.

El pueblo, dueño de la iglesia

Aquellos que están examinando los viejos papeles de nuestro municipio no le han encontrado dueño a esta hermosa iglesia. En los pasados siglos, la construcción de las iglesias corría a menudo a cargo de personas particulares, poderosas, nobles y semejantes, y los han tenido en propiedad durante largos periodos. También los obispados y parroquias se esforzaban en levantar iglesias parroquiales, y, en esos casos, son estas instituciones las que ostentan la propiedad de forma documentada. A todas luces, parece ser que nuestra iglesia no fue construida por ninguno de esos estamentos.

La iglesia parroquial de Oiartzun, tanto la actual como la anterior a ésta, es fruto del dinero y la diligencia del pueblo. Hubo, claro está, gente distinguida del municipio que aportó algún dinero para ese menester, mas, también en aquel entonces, los más desprendidos fueron los baserritarras y los trabajadores manuales, los cuales fueron aportando para ese fin lo embolsado céntimo a céntimo con el sudor agrio de su frente. Así es como se realizaban en aquella época la mayoría de las cosas: se reunían en junta los propietarios de casas, debatían sobre las necesidades de la villa y ellos mismos acordaban lo más conveniente. Por ello es tan ensalzada la conducta democrática de nuestros mayores.

Aquellos que han escrito la historia de Oiartzun expresan claramente que también las cuestiones de la iglesia se acordaban de esa forma. La iglesia era algo propio y personal que no se vendía ni al mejor postor, ni tampoco se dejaba en manos de cualquiera. Poco a poco, atendiendo a las necesidades, y según iban obteniendo dinero, se esforzaron en construir y embellecer la iglesia. Así ha llegado hasta nues-

Hain hala, garai batean Elizako **patronatu** izeneko erakunde batzuk izaten baitziren (eta zenbaitetan oraindik ere badira) Elizari mesedeak egiteagatik eta, askotan, eliza berriak edo erlijioaren zerbitzurako beste etxeak eraikitzearen ordainetan, eskubide edo pribilegio batzuk zituztenak, batik bat elizaren ondasunak gobernatzekoa eta karguetako izangaiak Elizako agintariei aurkeztekoa, hauek izenda zituzten. Eta Oiartzunen ere bazen horrelako erakundea, alkatea buru zuena. Herriko bikarioak eta beste apaizek ez zuten parterik patronatu horretan, laiko hutsena baitzen - «merelego» deitzen diote garaiko agiriek. Erakunde horrek zuen eliza mantentzeko ardura eta, ordainetan edo, berak zuen herriko bikarioa aukeratu eta Gotzainari aurkezteko eskubidea. Izendatu azken honek egiten zuen, baina aurkeztu patronatuak, hau da, neurri handi batean, herriak.

Begien bistakoa da gauzak horrela egiteak bazituela alderdi txarrak, onak hainbat seguraski, baina beste era guztiek ere badituzte beren arriskuak eta aieka ilunak, eta hutsegite galantak egiten dira horrelako eginkizunetan beste jokabide batzuekin ere. Gauza bat da argia: jendeak, garaiko kristauek, bazutela batzuetan bederen elizan horrelako gauzetan eskubide bat eta Oiartzungo herrian eta elizan eragin handia izan zuela garai haietan laiko hutsen patronatu hark, paper zaharreek diotenez. Haiiek utzitako ondarea da, besteak beste, gaurko San Esteban parroki eliza.

Lehena eta oraina lotu

Lehenari begiratuta gauzak horrela ageri bazaizkigu, egokia da gaurko egoera eta jokabideak aztertzea. Alde batetik, gaur aginte zibilak horrelako eraikuntza eta etxetan eskua sartzen duelako, agindu eta arau zorrotz askoak ezarriz sartu ere maiz aski. Bestalde, gaur ere diru publikoa, aginteak erabiltzen duena, alegia, beharrezkoa delako horrelako lanak mantenduko badira —egia da ez dutela inoiz ematen beharko litzatekeen guztia, ezta alderatzeko ere. Arau eta agindu horiek, jakina, ez dira udal mailakoak izaten, goragotik datoz eta denek bete beharrekoak dira. Ez dauka gaur inork, esate baterako, Oiartzungo elizarekin eta elizan nahi duen guztia egiterik. Hala ere, ez dute ordainetan Elizaren martxan lehen bezalako eskubiderik izango.

Gure elizak zaharberritzen hasi orduko hiru alderdi dira, besteak beste, oso kontuan hartu beharrekoak. Eta zenbaitetan bat ez datozenak eta korapilo nahastuen sortzaile izaki ikuspegi horiek. Elizako Obretako Batzordeak oso aintzat hartu ditu irizpide horiek eta saiatu da, ahalegin osoan, bide zuzenetik ibili eta orekari eusten. Elizak, lehen eta orain, kulturearen eta elizkizunen leku izan behar du; horretarako sortua da eta horretarako egokia izan dadila nahi genuke. Liturgia eta elizkizunen eitea aldatu egiten da, ordea, mende edo aro batetik bestera; ez Jainkoa eta haren egia aldatu direlako, giza ohiturek beste modu batzuk eskatzen dituztelako baizik. Ezin ari gaitezke eliza berri-terakoan gauza guztiak lehen izan ziren bezala antolatzen; ez da berrikeria nahi izatea, ezta modari jarraitzea ere, gauzei beren erabilera logikoa ematea baizik.

Hiru irizpide

Gurean bezala elizei sakoneko zaharberritzea egiten zaionean, beti izaten dira edozein aldaketa, denik eta txikiena ere onartzen ez dutenak. Dena betiko moduan ikusi nahi lukete eta horixe izan ohi da arrazoin nagusia askotan. Edozeinek du bere

tros tiempos esta iglesia parroquial que es, sin duda alguna, el edificio más hermoso de este municipio.

El patronato

A lo largo de los siglos, nadie ha negado que esta iglesia pertenece al pueblo; es decir, que es de todos. Debido a ello, no figuran dueños ni amos en los documentos, ya que es propiedad de todos los oiartzuarras. Tan es así, que en cierta época existían unas instituciones denominadas patronatos (incluso alguno perdura hoy día) que ostentaban ciertos derechos o privilegios —a veces por hacer favores a la Iglesia, otras muchas a cambio de construir nuevas iglesias u otro tipo de casas al servicio de la religión—, en lo concerniente, sobre todo, a la administración de los bienes de la iglesia y a la facultad de presentar a las autoridades de la Iglesia candidatos para los cargos, a fin de que procedieran al nombramiento. También en Oiartzun existía una institución de esa clase, con el alcalde al frente. El párroco y los curas de la villa no formaban parte del patronato, ya que era exclusivamente de laicos (los documentos de la época lo denominan “merelego”). Era responsabilidad de dicha institución el mantenimiento de la iglesia. A cambio, contaba entre sus atribuciones con el derecho de elegir al párroco y presentárselo al Obispo. El nombramiento lo hacía este último, mas lo presentaba el patronato; es decir, en gran medida, el pueblo.

Salta a la vista que el actuar de ese modo tenía sus desventajas; probablemente tantas como ventajas. No obstante, todos los procedimientos comportan riesgos y tienen su lado oscuro. Es más, también con otros proceder se cometen enormes equivocaciones en quehaceres de ese tipo. Lo notorio es lo siguiente: que la gente (los cristianos de la época) tenía sin duda alguna, por lo menos en ciertos casos, un derecho sobre la iglesia en ese tipo de cuestiones y que en su época aquel patronato laico tuvo una gran influencia tanto en la villa como en la iglesia de Oiartzun, según rezan los viejos documentos. Entre otros, es patrimonio transmitido por ellos esta iglesia parroquial de San Esteban.

Unión del presente y del futuro

Si mirando al pasado las cosas se nos presentan así, es apropiado estudiar la situación y el comportamiento en el presente. Por una parte, porque hoy día el poder civil interviene en este tipo de edificios y construcciones; muchas veces, además, imponiendo órdenes y normas muy estrictas. Por otra, porque también hoy día el dinero público, del que se vale el Gobierno, es imprescindible para ese tipo de obras —bien es verdad que nunca adjudican todo lo que hace falta ni mucho menos—. Dichas normas y órdenes, claro está, no suelen ser de rango municipal; provienen de más altas esferas y son de obligado cumplimiento para todos. Por poner un ejemplo, en el presente nadie puede hacer lo que quiera en la iglesia ni con la iglesia de Oiartzun. A pesar de ello, no tienen a cambio tantos derechos como antaño en el gobierno de la Iglesia.

Antes de empezar a restaurar las iglesias, hay que tener muy en cuenta, entre otros, tres aspectos que a menudo no concuerdan y que son puntos de vista que impliquen problemas muy embarullados. La Comisión de Obras de la Iglesia ha dado mu-

iritzia emateko eskubide osoa, baina ez luke inork harritu eta zapuztuta geratu behar gauza zaharrak, jada balio ez dutelako, kendu edo aldatzen badira eta gaurko gustuari eta eskakizunei begira jarri eta behar diren tresna eta hornidura berri eta egokiak jarri. Ez dio horrek fedeari kalterik egiten, mesede baizik.

Beste alderdi bat, oso kontuan hartu beharrekoa artearena da. Gure elizetan, eta Oiartzungoan zer esanik ez, badira balio handiko artelanak. Horren aiderazgarri da Eusko Jaurlaritzak gure erretaula nagusia Euskal Herriko ondare izendatu izana. Arteak badu bere leku zabal eta oparoa Jainkoaren etxean. Baina ez dago ondo guztia artearen mendeen jartzea eta guztia arau estetiko hutsen arabera egitea; eliza ezin daiteke museo izan, ez elizaterako erabiltzen den bitartean behinik behin. Horregatik, zentzuz jokatu nahi duenak lehenbizi lanik premiazkoenak egingo ditu, liturgiarako eta jendearen biltoki izan dadin behar direnak, alegia, eta gero besteak, nahiz eta artezaleek askotan besterik uste eta nahi izaten duten. Gainera, gauzak ondo aztertuz gero, konturatuko gara laguntzailerik gehienek, dirua ematen duten pertsonak, alegia, sinesmenaren eta erlijioaren izenean ematen dutela nagusiki. Maiz aski gertatzen da horrelakoetan artezaleak, elizei artearen ikuspegi hutsetik begiratzen diotenak, atzera xamar geratzen direla beren xede jasoak azaldu ondoren patrika hustu behar denean.

Artearen eta kulturaren aldeko militantzia edo zaletasuna ez da berez fedea eta eliza, ezer baldin bada, fedearen etxea da.

Kontuan hartu beharreko hirugarren alderdia: kostu izugarriak. Izan ere, azken buuruan, milioiak eta milioiak gastatu behar dituzu gaur egun garai batean egindakoari eusteko. Harrigarria da askotan ezin ditugula behar bezala mantendu antzinako etxe eta artelanak gure herrietan orduan baino jende gehiago eta diru gehiago duena bizi arren. Jendearen fedea gutxitu egin delako?, arteak eta horrelakoek estimazio handirik ez dutelako?, gaurko bizimodua pragmatikoagoa delako?, romantizismoa kapitalismoarekin ezkontzen ez delako?... auskalo gergatik. Dena den, horrelako gastu ikaragarritan sartzeak beste lan batzuk, askoren ustetan, beharrezkoagoak direnak, oztopatu eta atzeratu egin ditu, eta egia ateratzen da nahi baino maizago esaera zaharra: gero dioenak bego dio; beste lan horiek ez dira inoiz egiten.

Pozik egoteko arrazoia

Horiek guztiak kontuan hartuz, merezi ditu Oiartzungo herriak -geurok esateak harrokeria eman badezake ere, zorionik beroenak: antzinatean, eliza eraikitzen eta apaintzen asmatu zuelako, eraikuntza harrigarria eta mendeen mendeetan irauteko bokazioa duena; orain, dirua maitekero sueto emanez, etxe bikain horri zaharberritze sakona egiteko gauza izan delako -eskuan duzun liburu hau izango da horren lekuko. Eta uste dugulako orain arte gauzak horrela egiteko gai izan den jendeak gero ere izango duela kemen, adore eta ilusioa Oiartzungo eraikuntzarik bikainenak beste mende askotan iraun dezan.

Eskerrona

Ezin bukatu ditut lerro xume hauek nere eta Oiartzungo Elizaren izenean hainbat eta hainbati eskerrak eman gabe: Obretako Batzordekoek, Udalak, Aldundiak, zuzene-

cha importancia a esos criterios, y ha puesto todo su empeño en actuar de forma equilibrada y en no desviarse del camino correcto. La Iglesia, tanto antes como ahora, ha de ser lugar de cultura y de actos religiosos, porque ha sido creado a tal fin y queremos que sea apropiado para ello. La forma de la liturgia y de los actos religiosos, sin embargo, ha cambiado de un siglo o de un periodo a otro; no porque hayan cambiado Dios o su verdad, sino porque las costumbres humanas exigen otros modos. Al renovar la iglesia, no podemos organizar todas las cosas como fueron antaño; no es una apuesta por la modernidad, tampoco es ir en pos de la moda; es, simplemente, hacer un uso lógico de las cosas.

Tres criterios

Siempre que como en el caso nuestro se efectúa una profunda reforma en la iglesia, nunca falta quién rechaza el cambio más nimio. Algunos quisieran ver todo en su estado de siempre: muchas veces, suele ser la razón principal. Todo el mundo tiene derecho a opinar, pero nadie habría de extrañarse ni enfadarse por el hecho de que se retiren objetos antiguos que hayan perdido valor y sean reemplazados por instrumentos y ornamentos nuevos y apropiados, atendiendo al gusto y a las exigencias del presente. Ese proceder no perjudica a la fe; muy al contrario, la fortalece.

El arte es otro de los temas a tener muy en cuenta. En nuestras iglesias, ni qué decir en la de Oiartzun, hay obras de arte de gran valor. Así lo demuestra el hecho de que el Gobierno Vasco haya clasificado nuestro retablo mayor dentro del patrimonio del País Vasco. El arte tiene un espacio amplio y generoso en la casa de Dios. Mas, no es de recibo subordinar todo al arte y realizar cada acto al dictado de meras normas estéticas; la iglesia no puede ser un simple museo, no por lo menos mientras tenga uso como iglesia. Por esa razón, quién quiera actuar con sentido común primeramente llevará a cabo los trabajos más apremiantes; justamente aquellos que son necesarios para la liturgia y para que la iglesia sea lugar de encuentro de la gente, y después el resto, aunque los amantes del arte crean y quieran a menudo todo lo contrario. Además, si analizamos bien el asunto, nos percatamos de que la mayoría de los colaboradores; esto es, los que aportan el dinero, lo hacen principalmente en nombre de la fe y de la religión. Ocurre con frecuencia, que los aficionados al arte, los que contemplan las iglesias exclusivamente desde el punto de vista artístico, una vez expuestos sus nobles fines, se quedan un tanto rezagados a la hora de vaciar los bolsillos. La afición o la militancia por el arte y la cultura no son fe en sí mismas, y si en algo se caracteriza la iglesia es en ser la casa de la fe.

El tercer aspecto a considerar es el enorme costo, ya que, al fin y al cabo, en el presente se necesitan millones y millones para que perduren las obras de otro tiempo. Aunque parece increíble, a menudo no somos capaces de mantener los edificios y las obras de arte de antaño, a pesar de que en la villa habita mucha más gente y más acaudalada que entonces. ¿Porque ha disminuido la fe de la gente?, ¿porque el arte y similares no gozan de mayor aprecio?, ¿porque el modo de vida del presente es más pragmático?, ¿porque el romanticismo no casa con el capitalismo?... vaya usted a saber. De todas formas, la asunción de gastos tan tremendos obstaculiza y ralentiza otros trabajos que según el parecer de muchos son más urgentes. Con ello, se cumple

nean aritu diren taldeetako langileek, bereziki Albayaldekoek, zuzendaritzan aritu direnek, beren aholkuekin lagundu dutenek, denek merezi dute eskerrik beroena. Ez genuke inor ahaztu nahi, baina bereziki gogoan ditugu beren diru-sarrera urritik gure eliza konpontzeko laguntza eman dutenak: batzuk hilak dira besteak bizirik daude; denek dute meritua eta eliza honetako elizkizun eta otoitzetan parte. Hasi bezala bukatzeko, BEJONDEIZULA, OIARTZUN.

BONI

BERRIHABILITAZIOA, LEKU-ALDATZEAK ETA BERRITZE-LANAK (1991-2011)

1991-1995. urteetako lanak. 1991. urtean hasi zen elizaren berrirakenduzko lanak. Lehenik eta berenburuz, elizaren eremua berrirakendu zen. Hurrengo urteetan, elizaren eremua berrirakendu zen. 1992. urtean, elizaren eremua berrirakendu zen. 1993. urtean, elizaren eremua berrirakendu zen. 1994. urtean, elizaren eremua berrirakendu zen. 1995. urtean, elizaren eremua berrirakendu zen.

1996-2000. urteetako lanak. 1996. urtean hasi zen elizaren berrirakenduzko lanak. Lehenik eta berenburuz, elizaren eremua berrirakendu zen. Hurrengo urteetan, elizaren eremua berrirakendu zen. 1997. urtean, elizaren eremua berrirakendu zen. 1998. urtean, elizaren eremua berrirakendu zen. 1999. urtean, elizaren eremua berrirakendu zen. 2000. urtean, elizaren eremua berrirakendu zen.

2001-2011. urteetako lanak. 2001. urtean hasi zen elizaren berrirakenduzko lanak. Lehenik eta berenburuz, elizaren eremua berrirakendu zen. Hurrengo urteetan, elizaren eremua berrirakendu zen. 2002. urtean, elizaren eremua berrirakendu zen. 2003. urtean, elizaren eremua berrirakendu zen. 2004. urtean, elizaren eremua berrirakendu zen. 2005. urtean, elizaren eremua berrirakendu zen. 2006. urtean, elizaren eremua berrirakendu zen. 2007. urtean, elizaren eremua berrirakendu zen. 2008. urtean, elizaren eremua berrirakendu zen. 2009. urtean, elizaren eremua berrirakendu zen. 2010. urtean, elizaren eremua berrirakendu zen. 2011. urtean, elizaren eremua berrirakendu zen.

un dicho que reza así: lo que se aplazó casi siempre se malogró; los otros trabajos no se realizan nunca.

Una razón para alegrarnos

Teniendo en cuenta todo lo expuesto, aun a riesgo de pecar de orgullo, afirmamos que el pueblo de Oiartzun merece la más calurosa enhorabuena. En el pasado, porque acertó a construir y a engalanar la iglesia, un edificio ciertamente admirable, con vocación de perdurar durante siglos y siglos; ahora, porque ha sido capaz de restaurar profundamente esa hermosa casa, aportando con cariño dinero en abundancia (precisamente este libro testimonia todo lo dicho). Y porque creemos que la gente que hasta ahora ha sido capaz de trabajar de esa forma también en el futuro tendrá vigor, energía e ilusión para hacer durar durante muchos siglos a la construcción más grande de Oiartzun

Agradecimiento

Antes de finalizar estas modestas líneas quisiera dar las gracias tanto personalmente como en nombre de la Iglesia de Oiartzun a tantos y tantos que han tomado parte en los trabajos: a los miembros de la Comisión de Obras, al Ayuntamiento, a la Diputación Foral, a los trabajadores de los grupos que han actuado directamente —en especial a los de Albayalde—, a los que han participado en la Dirección, a los que han aportado consejos... todos merecen un agradecimiento caluroso. No queremos olvidarnos de nadie, pero siempre tenemos presentes en especial a todos aquellos que de sus escasos ingresos han hecho aportaciones para el arreglo de la iglesia: algunos han fallecido, otros viven. Todos tienen mérito y parte en los rezos y actos religiosos de esta iglesia. Para acabar tal y como hemos empezado, ENHORABUENA, OIARTZUN.

BONI

OIARTZUNGO SAN ESTEBAN PARROKIAREN ZAHARBERRITZEA, ERREHABILITAZIOA, LEKU-ALDATZEAK ETA BERRITZE-LANAK (1991-2001)

Azken hamar urte hauetan Oiartzungo San Esteban parrokia zaharberritzeko eta errehabilitatzeko egindako hainbat lanek komunikabideetan oihartzuna eta erreferentzia handia izan dute. Oraingoan, halere, ezin izan diogu "MUGARRI"k eskaini digun gonbitari ezetz esan, eta eskaini dizkigun orriak erabiliko ditugu egindako lanen prozesua eta xehetasunak zehazteko.

Denbora asko pasa da, 1991ko urriaren 21eko goizaldean, parrokiako bobedaren dobela bat erori, Parrokiko elizkizunak bertan behera utzi eta parrokia errehabilitatzeko eta zaharberritzeko egiten ari ziren kudeaketa-lanak azkartu zirenetik. Hori gertatu aurretik egiten ari ziren parrokiaren azterketek aurreikusten zuten tamaina handiko konponketak egin beharko zirela: erabateko konponketa egin behar zenez, konponketak mailaka eta faseka egitea egoki ikusi zuten eta, baita, beharrezkoak ziren baliabide ekonomikoak lortu arte erritmoa egokitzea ere.

Eta halaxe egin zen. Lehen helburua honakoa izan zen: gainerako dobelak finkatzeko azterketa egitea, teilatua konpontzea, Apezpikutzarekin, Udalarekin eta Foru Aldundiarekin harremanetan jartzea. Era berean, oiartzuar orori inguruko eraikinik enblematikoenaren egoeraren berri jakinaraztea eta arazo larri horren aurrean euren eskuzabaltasuna eskatzea. Denborak aurrera egin ahala frogatu ahal izan genuenez, fede ematen dut, herritarrek eskaerari oso ondo erantzun ziotela.

Parrokia urtebete baino gehiago itxita egon zenean, behin-behineko elizkizunak Madalensoro pilotalekuan egiten ziren eta baita San Juan Kaperan ere. Herritarrek gogotsu egin zioten aurre egoera honi. Bitartean, "Lanen Egitasmoa" prestatzen ari ziren, parrokiaren orduko egoera txarra eta arbasoek eraiki zutenean parrokiak zuen handitasuna berreskuratzeko nahia zela eta, pixkanaka-pixkanaka erabateko konponketa izango zena. Beraz, lanak modu egokian antolatu nahi ziren: faseka eta lehentasunen arabera. Lehen faseko lanak bobeda eta teilatua ziren, biak oso egoera txarrean eta kalte gehiago sortzeko arriskuan baitzeuden.

RESTAURACIÓN, REHABILITACIÓN, TRASLADOS Y NUEVAS OBRAS EN EL TEMPLO PARROQUIAL SAN ESTEBAN DE OIARTZUN. (1991-2001)

Aunque las obras de restauración y rehabilitación llevadas a cabo durante estos últimos diez años en el templo parroquial San Esteban de Oiartzun ya han tenido eco y referencia puntual en diversos medios de comunicación, no podemos dejar pasar por alto esta amable y oportuna invitación que nos brinda «MUGARRI» ofreciéndonos sus páginas para narrar su proceso, detallándolas y dejar así constancia de las mismas.

Ha pasado bastante tiempo —desde la madrugada del 21 de octubre de 1991— en la que una dovela desprendida de la bóveda central provocó el inmediato cierre de la parroquia a todo acto religioso, así como a la aceleración de las gestiones que venían realizándose para su rehabilitación y restauración. Los análisis previos ya hacían presagiar que éstas serían de gran envergadura, exigiendo una restauración integral, siendo conveniente por tanto realizarlas escalonadamente, en fases para, por otra parte, atemperarlas al ritmo que marcara la captación de los recursos económicos necesarios.

Y así fue: El objetivo inicial comenzó con el estudio para la consolidación de las demás dovelas, el arreglo del tejado, el establecimiento de contactos con el Obispado, Ayuntamiento y la Diputación Foral, así como la correspondiente información a los oiartzuarras de la delicada situación en que se hallaba el edificio más emblemático del valle e instándoles a colaborar y a que mostraran su generosidad ante el problema, algo que a la altura de los años transcurridos podemos dar fe que la demanda fue muy bien secundada.

Durante más de un año en el que el templo estuvo cerrado al culto, los feligreses soportaron estoicamente la insuficiencia y las incomodidades de las funciones religiosas que se celebraban provisionalmente en el frontón Madalensoro y en la Capilla de San Juan. Entretanto se estaba preparando un «Proyecto de Obras» que, por la situación de deterioro del templo y el deseo de devolverle la magnificencia con la que fue construido por nuestros ancestros, acabaría abarcando, paulatinamente, a todo su conjunto. De ahí la consideración de desarrollarlo adecuadamente, por fases, y al ritmo y medida que aconsejaran las prioridades. En la primera fase se incluyeron funda-

Urtebete pasata, 1992ko azaroaren 22an, "txupinazo" sorta batek iragarri zuen teila kentzen hasi zirela.

Leku batzuetan, ura iragazteko iragazgailua zirudien teilatuak. Ondorioz, ura bo-bedan barrena pasatzen zen, zurezko lurra okertu arte. Teila arabiarra, uraren eraginez oso kaltetua, aldatu egin behar izan zen eta pisu gutxiagoa zuen eta hermetikoagoa zen beste bat jarri behar izan zuten. Ondorioz, zurezko egitura guztia askatu eta "Zimitio"ra jaitsi behar izan zuten behar bezala tratatzeko, indartzeko eta berriro bere lekuan jartzeko. (Ikusgarria izan zen oso!).

Aldi berean, parrokiako dobela guztiak finkatu ziren burdinazko barrekin, baita bo-beda eta inguruko hormak indartu eta finkatu ere, ganbaran eraikitako arku baten bidez.

1994ko maiatzaren 4an, dorrean jarritako erramu-hosto lerden batek lanen lehen fasea amaitu zela adierazi zuen. Beste lanez gain, dorrearen estalkia, lau pinakuluen errematea eta tximistorratz berria jarri ziren.

Parrokiaren erdian jarritako aldamiok (nabearen altura duen 23 metrokoa), bigarren faseari hasiera emateko balio izan zuen: bobeda amaitu, barneko harlandua garbitu, pitzadurak, filtrazioak eta hainbat urtetako suteen, gerlen eta tximisten eraginez sortutako masa-galtzeak ixtea.

Lekuaren hezetasuna eta kandelen kea zela eta, hormetako pintura ilundua, zikindua eta hondatua zegoen. Parrokia honetan ere, beste askotan gertatu zen bezala, igel-tsero italiarraren gustua egin zen, izan ere euren elizetako marmolaren edertasunarekin txundituta zeudenez, ez zuten onartzen hemengo elizetako harlanduaren kolore tristea eta karez eta igeltsuz estaltzen zuten.

Bere garaian Jaizkibelgo harrobitik ekarri ziren harrien egoera aztertu ondoren, pintura-kapak kentzea eta berriro lantzea erabaki zen. Hauts ugari harrotu zuten eta, bitartean, ate nagusiko bi leiho, hormetan egindako bi aitorlekuren zuloak, bi limosna-ontzi, koruaren goiko partean bi ate eta gurutze landu batzuk agerian gelditu ziren. Era berean, beste galerietara zihoan eskaileraren aztarnak ere agertu ziren. Eskailera horiek Iparraldeko elizetan oso ohikoak dira eta ez da ahaztu behar parrokia hau Baionako Elizbarrutiaren menpe egon zela.

Hurrengo fasean lurrak altxatu ziren. Oso ekintza garrantzitsutzat hartzen zen alde z aurretik eta, egia esan, halaxe izan zen. Fase honetan arkeologo-talde bat aritu zen lanean eta oholezko zola kendu bezain pronto hareharrizko harri errektangularez osatutako lurra aurkitu zuten. Hareharrizko harri hauek hizki latindarrez egindako inskripzioak zituzten. Aurkitutako 493 harrietatik 248k emakumezkoen izenak zituzten, 234k oinetxeen izena, eta 8k gizonezkoen izenak. Ez da harriztekoa, izan ere gizonezkoek euren zenbakia eta euren eserlekuarena izaten zuten idatzita bankuan (hasieran gizonezkoen izenak ere idazten bazituzten ere). Emakumeek, berriz, elizako hilobian izaten zuten euren zenbakia edo etxearena. Parrokian egindako prospekzioetan, harlauzen pean, ez da hezur-hondakinik aurkitu, bertan kanposanturik egon ote zen frogatzeko. Guztiz ziurtatzen zuten agiririk ez zegoen, baina ikerketa xehatu baten ondoren, harlauza XVIII. mendekoa zela zehaztu zen.

Oraindik sakontasun handienera iritsi gabe, lurzoruaren egitura nolako zen ikusteko prospekzio geoelektrikoak aurrera jarraitzen zuen eta berehala poztasun handia

mentalmente la bóveda y el tejado, ambos muy deteriorados y con evidente peligro de ocasionar más destrozos.

Había pasado más de un año —era el 22 de noviembre de 1992— cuando una colección de «txupinazos» anunciaba el comienzo del «desteje».

El tejado parecía en algunos lugares más bien un colador por donde pasaba el agua atravesando la bóveda, goteando hasta curvar el suelo de madera. Y la teja árabe, muy afectada por la intemperie, no permitió otra opción que la de cambiarla por otra más hermética y de menor peso. Todo ello obligó a desmontar el entramado de madera bajándolo al «Zimitio» (¡fue un verdadero espectáculo) para su tratamiento, consolidación e izamiento a su lugar.

Simultáneamente se procedía a la sujeción de todas las dovelas por medio de barras de acero así como a la estabilidad y refuerzo de la bóveda y de las paredes perimetrales por medio de un gran arco construido en el mismo desván.

El 4 de mayo de 1994, una esbelta rama de laurel colocada en lo más alto de la torre anunciaba la conclusión de la primera fase de las obras a la que se habían incorporado el arreglo de la cubierta de la torre, el remate de los cuatro pináculos y la colocación de un nuevo pararrayos.

El enorme andamiaje (los 23 metros de altura de la nave) colocado en el centro del templo, sirvió para abordar la segunda fase que abarcaba la finalización de la bóveda, la limpieza de los sillares interiores y el taponamiento de grietas, filtraciones y masas perdidas por causas de los incendios, guerras y rayos habidos a través de los muchos años.

Debido a tanto tiempo soportando el humo de las velas y la humedad del recinto, la pintura de las paredes se hallaba oscura, sucia y muy descompuesta. La parroquia, en su día, al igual que otras muchas, también había claudicado ante los albañiles italianos que, subyugados por la belleza marmórea de sus templos, no toleraban bien el color tristón de las piedras sillares de nuestras iglesias, cubriéndolas de cal y yeso.

Efectuadas las pruebas oportunas para comprobar el estado de las piedras, traídas en su día de las canteras del Jaizkibel, se optó finalmente por la eliminación de las diversas capas de pintura procediendo a relabrarlas. Este procedimiento, polvoriento a más no poder, permitió destapar dos ventanas sobre la puerta principal, los huecos de otros dos confesionarios empotrados en las paredes, dos limosneros más, dos puertas de acceso en la parte alta del coro y algunas cruces labradas, quedando a la vista los alojamientos de la presunta escalera que, acaso, pudo servir de acceso a otras galerías, tal como sucede en las iglesias del entorno de Iparralde, y teniendo en cuenta que nuestra parroquia perteneció a la Diócesis de Bayona.

La siguiente fase supuso el levantamiento de los suelos, tema que a priori se estimaba interesante, como así fue. Para ello se contó con un equipo de arqueólogos que ya en su primera intervención, tras la eliminación del entarimado, encontraron un suelo formado por piedras rectangulares de arenisca que cubrían la planta del edificio y llevaban inscripciones en letra latina. Se contabilizaron 493 de las que 248 aludían a nombres de mujeres, 234 a casas solares y 8 correspondían a hombres, lo que no era de extrañar puesto que lo habitual era que los hombres tuvieran grabado su número,

sortu zuen aurkikuntza izan zen. Beirazko eta zeramikazko kontu artean eta hezurren heste-hari zoragarri batekin batera, jatorri eta kronologia desberdineko 900 piezaz osatutako moneta-sorta aurkitu zuten. Moneta-sorta hau parrokiaren lurrian banatuta zegoen. Aurkikuntza honen ondorioz “MUGARRI” (4. zk. 1997 “San Esteban elizako moneten aurkikuntza”) liburua argitaratu zen eta irakurtzea gomendatzen dizuegu.

Prospekzio geologikoak aurrera jarraitu zuen eta berehala, berriz ere, beste poztasun bat jaso genuen, izan ere jatorrizko zorua azpian erdi aroko elizaren aztarnak aurkitu zituzten. Eliza hori izan zela susmatzen zen, baina ordura arte ez zegoen frogarik. XII. mendeko eliza erromanikotzat hartu zuten. Lurrazpian berokuntza sistema berria jartzeko unean, eliza zaharra non egon zen markatu zuten harlauza ilunago bazuten bidez.

Hasieran sakristia berri beharko zenik espero ez zuten arren, azkenean sakristia-ko karezko estalkia kendu egin zuten, hormak berriro landu zituzten, harlauza berriak jarri zituzten, teilatu berria, terraza berria eta hainbat urtetan itxita egon zen sarrerako atea berriro ireki zuten.

Lanak egin ziren bitartean, hainbat aldaketa garrantzitsu ere egin ziren: Santa Katalinaren eta San Martinen aldareak lekuz aldatu ziren, aldare nagusitik Santokristo Kaperaren sarrerara eraman ziren, koruaren azpira. Aldaketa horrek zeresan handia sortu zuen. Aldaketa “Apezpikutzako Lanen Batzordea”ren iritzia jarraituz egin zen, nahiz eta, hasieran, eliztar batzuen gustukoa ez izan.

Pulpitua ere metro batzuk mugitu egin zen San Luisen eta Doloretako Ama Birjina erdian jartzeko asmoz eta pasilloan leku gehiago izateko. Aldareen oinarriak ere aldatu egin ziren, zentimetro batzuk gutxitu zitzaizkien.

Sebastian Lartaun, Oiartzungo semea, Apezpikutzak koroatu zueneko oroimenezko hilarria parrokiaren eskuineko aldeko sarreran jarri zen, bere lekua izan zenaren parean.

Era berean, kalbarioan zeuden igeltsuzko 14 eliz-txandak ordezkatu egin zituzten eta estilo tenplarioa zuten burdinazkoak jarri zituzten.

Denboraren eraginez, parrokia sakratu egin zuten 12 gurutze zeltiarrak ez ziren ikusten eta beste lanekin batera, berriro margotu egin ziren.

Bitartean, berokuntza elektrikoa, megafoniako sistema, alarma-sistema eta aspirazio-sistema jarri ziren. Era berean, parrokiaren zegoen hezetasunari aurre egiteko asmoz, zenbait hodi poroso jarri zituzten lurzorua drainatzea eta aireztatzea ziurtatzeko.

Lanik garrantzitsuenak jadanik eginak zeuden eta “Koroaren Perla” preziatuena den “aldare nagusiko Erretaula” berritzen hasita zeuden, XVIII. mendekoa (“Kulturako Ondasun Kalifikatua”), baita beste zazpi aldare eta pulpitua ere. Baina, konturatuko zinetenez, kapitulu honek narrazio hutsa baino zerbait gehiago eskatzen du eta horretarako “ALBAYALDE”ko artisten esku uztea eskatzen du. Izan ere, “MUGARRI”k egin zien gonbita alde batera utzi gabe, eskuartearen dugun liburu hau prestatu zuten. Liburu hau gure bailarako kultur ondarearen altxor berri bat izango da.

Parrokiaren sarrera nagusia “Pietatearen Kaperatzat” hartu izan da, zenbait dokumentutan. Sarreraren ateburuan, zurezko kaxoi batean enmarkatua zegoen “Pietatea-

el de su asiento, en el banco —si bien en un principio los tuvieron grabados con sus nombres— y las mujeres, en cambio, llevaban el suyo o el de sus casas en las sepulturas del interior de las iglesias aunque, caso raro, en las prospecciones llevadas a cabo en la nuestra, bajo las losas, no se hallaron restos óseos que certificaran la existencia de un cementerio. A falta de documentos que lo acreditaran, pero tras un detenido estudio, el enlosado fue datado como del siglo XVIII.

Al mismo tiempo que progresaba la prospección geoelectrica para conocer la estructura del subsuelo sin necesidad de excavarlo en profundidad, vino la alegría de otro feliz hallazgo: entre restos de cuentas de vidrio, cerámica y un precioso bordón de hueso, vino el descubrimiento monetario compuesto por 900 piezas de diversa cronología y procedencia, dispersas por toda la superficie del templo. La importancia de este hallazgo dio cumplido motivo para la edición de un «MUGARRI» (n.º 4 - 1997 «El hallazgo monetario de la Iglesia de San Esteban») cuya lectura recomendamos.

La prospección geológica continuó y no tardó en proporcionarnos otra emoción puesto que bajo el pavimento original surgieron parte de los cimientos del primitivo templo medieval cuya existencia se presumía, pero que no se conoció hasta ese momento. Al templo se le consideró como románico del siglo XII. A la hora de colocar el nuevo sistema de calefacción por el subsuelo se tuvo buen cuidado de señalar su localización marcando las siluetas de los restos con losas más oscuras.

Aunque en un principio la sacristía no entró en los cálculos para su tratamiento en profundidad, finalmente se procedió a la eliminación del baño de cal que la cubría, relabrar sus paredes, nuevo enlosado, nuevo tejado, se le añadió una terraza y reabrió la puerta de entrada tras muchos años de hermético cierre.

Durante las obras también se efectuaron algunos cambios significativos, siendo el más relevante el traslado de los altares de Santa Catalina y San Martín desde el pie del Altar Mayor a la portada de la Capilla del Santo Cristo, bajo el coro, y tanto por su tamaño como por la polémica que suscitó el traslado. Su desplazamiento se realizó asumiendo el criterio manifestado por la «Comisión de Obras del Obispado», aunque no fue del agrado de algunos feligreses, al principio al menos.

También al púlpito se le desplazó unos metros con objeto de centrar los altares de San Luis y el de la Virgen Dolorosa y para ganar espacio en los pasillos; igualmente se hizo con las bases de los altares quitándoles varios centímetros.

A la lápida conmemorativa de la coronación episcopal de Sebastián de Lartaun, hijo de Oiartzun, como obispo de Cuzco, se le situó a la derecha de la entrada principal del templo, precisamente enfrente de donde estuvo.

Asimismo se procedió a la sustitución de las 14 estaciones de escayola del «Calvario» por otras de hierro de estilo templario.

La acción del tiempo había logrado la desaparición de algunas de las 12 cruces celtas que distinguían a nuestro templo como consagrado, por lo que se procedió a su repintado.

Mientras tanto se había procedido a la instalación de la calefacción eléctrica, el sistema de megafonía, el de alarma y el de aspiración. Asimismo, y con ánimo de ba-

ren” irudi klasikoa: harzuri polikromatuan egina, XV. mende ingurukoa, “amatxo” eder bat eta etzanda Kristo penagarri bat alboan duela. Eskultura dotore horiek “Doloretako” erretaularen ezker aldean jarri ziren, erretaularen oinarrian egon zen etzandako Kristoren gainean.

Antzinako oiartzuarek parrokiari jarri zuten “Errege Katolikoek” ezkutua. Dirudienez, elizak su hartu ondoren, Isabel erreginak eliza berritzeko diru-laguntza eman izana eskertzeko eta, baita, 1491. urtean Oiartzun eta Erreterria banatzeko baimena eman izanagatik. 1907. urtean egin ziren lan garrantzitsuak zirela eta, leihoak handitu..., ezkutua bere lekutik kendu zen eta sakristiako lurrean egon zen denbora luzean eta azkenik, epistolaren ondoko horma nagusian sartzea erabaki zen, lehen bere lekua izan zenetik gertu. Inguruan jarri zituzten bataiarria eta Maria Engrazia Lekuona Aranburu beataren oroitarria.

1654. urtean, ezagutzen zen parrokiari organoa eta organojole benefizioduna izan zirela. Gaur egungo organoarekin, Cavaillé-Coll firma ospetsukoa, Parisko San Sulpicio parrokiatik ekarria eta 1861. urtean inauguratua, ikaragarrizko suertea izan dugu eta hasieran uste baino askoz hobeto dago. Ukitu txiki batzuk behar ditu, baina gainetarakoan organoaren notek Parrokiako bobedak gainezkatzen dituzte eta euren oihartzuna entzuten da... Orain, gainera, dobelaren bat eroriko ote den arriskurik ez dago.

Barneko sarrerako hiru ateei ere, erabileraren erabileraz nahiko gaizki zeudenez, xilofagoen eta hezetasunaren aurkako tratamendua eman zitzaion.

Sakristiako tiradera Sebastian Lecuna (sic) herritar bikainak egina, eta sorrerako helburuarekin bat ez datorrena, urteen eta erabileraren eraginaren ondorioz kaltetua zegoen, baina konponketa eta tratamendu egoki batekin berriro ere berria bezala utzi dute.

Egin ziren gauza berrien artean ate nagusian jarritako burdinsarea nabarmenduko nuke. Burdinsarea, erabileraren ondorioz hondatuta zeuden zurezko ateen ordeztu jarri zuten eta, bidez batez, sarrera apaintzeko asmoz. Leku berean, 1571. urtean Cuscoko apezpikuak Sebastian Lartaun oiartzuarrari emandako bedeinkapenaren berri ematen duen idatzizko kondaira babesteko plastikozko pieza bat jarri zen.

Antzinako hitzarmen baten arabera, gure Udala da dorreko erlojuarekin erlazionatutako gaien arduraduna eta, ondorioz, antzinako erloju anarkikoa kendu eta ordua ondo emango duela ziurtatzen duen berri bat jarri zuen. Oraingoz puntu-puntu dabilta lau esferak.

Lau motatakoak dira parrokiko kanpaiak: lehen motakoak, mezak iragartzen dituztenak, sakristiaren gainean, teilatuan zeuden. Kanpaia horren ezpataina hondatuta zegoen eta berritu egin behar izan zen. Gainerako kanpaiak: San Estebangoa (“handia”); San Estebanena eta Santa Barbararena (“bigarrena”); San Joanena eta San Ignaziorena (“txikia”). Hiru horiei, perkusio-sistema aldatu zitzaion: gingilarekin kolpatu eta sokari eskuarekin eragin beharrean, sakristiatik eragindako mando elektromekaniko bidezko porra-sistema jarri zitzaion. “Kanpai Handia” deiaren kasuan teknikoki ezin izan zen aldaketa hori egin eta, beti bezala, eskuarekin eta oinarekin eragiten jarraitzen da. Aurretik, honako deiak bildu eta transkribatu ziren ordenagailuz:

tallar contra la persistente y gran humedad del recinto, se había procedido a la colocación de varios tubos porosos para el drenaje y la aireación del subsuelo.

Los trabajos más imprescindibles estaban ya ultimados y se había dado paso a la restauración de nuestra «Perla de la Corona»: el «Retablo del Altar mayor», barroco del siglo XVIII (declarado «Bien Cultural Calificado»), así como a la restauración artística de otros siete, más el púlpito. Pero este capítulo precisa mucho más que una somera narración, exige dar paso a los artistas de «ALBAYALDE» quienes, atentos a la invitación de «MUGARRI», no perdieron tiempo alguno para realizar este bello e interesante libro que ahora sostienes en tus manos: LOS RETABLOS DE LA PARROQUIA DE SAN ESTEBAN DE OIARTZUN, el cual pasará a engrosar el acervo cultural de nuestro valle.

En algunos documentos se citaba a la entrada principal del templo como «Capilla de la Piedad» y sobre el dintel de la misma, enmarcada en un cajón de madera, se hallaba la clásica imagen de «La Piedad», en alabastro policromado y a la que se le supone del siglo XV, compuesta por una bella «amatxo» y un Cristo Yacente verdaderamente patético. Este elegante conjunto escultórico se colocó en el lado izquierdo del retablo de «La Dolorosa», sobre el Cristo, también yacente, que en su día ocupó la base del retablo.

Como casos excepcionales en el retablo mayor cabría señalar los hábitos de San Ignacio y Santo Domingo, realizados únicamente con esgrafiado; el primero, con ropaje negro decorado con motivos florales, siguiendo patrones textiles y cenefas ampliamente desarrolladas; el segundo, portando manto negro y túnica blanca, revestidos con modelos vegetales dentro de cartelas polilobulares, de trazos cóncavos y convexos. San Isidro (retablo de la Virgen del Rosario) presenta técnicamente una policromía similar, con hábito negro y dibujo dorado simétrico de flores (claveles, margaritas,...) y tallos vegetales, enteramente realizado en esgrafiado, incluidas calzas y botas.

– *Estofado a punta de pincel* (fot. 52-53-54-55-56)

El **estofado a punta de pincel** es, en sentido estricto, la decoración realizada pintando labores de diversos colores directamente sobre el fondo de oro bruñido. Esta pintura

– *Pintzel-puntazko estofatua* (52-53-54-55-56. arg.)

Pintzel-puntazko estofatua, adiera hertsian, urre txartatuzko hondoaren gainean zuzenean hainbat koloretako lanak pintatuz eginiko dekorazioa da. Pintura horrekin batera joan ohi da esgrafiatua, gainalde koloreztatuak karrakutzen dituen eta urrea bistan uzten duena. Horren emaitza urrezko kolore eta distiren nahastura bat izan ohi da.

Erretaula nagusian, estofatuak **toki gailena** hartzen du dekorazioaren barruan, gainalde guztia figuraz eta eszenaz josten baitu, salbu eta, noski, pertsonaien haragiztadurak eta esgrafiatura edo urreztadurara bakarrik xedaturiko zonak.

Hostoek eta **loreek** pertsonaien ia mantu eta tunika guztiak okupatzen dituzte, eta aberastasun handikoak dira. Haien irudikapena era askotarikoa da, eta, eskuarki, oso estilizatuak eta sinplifikatuak dira, edo esan liteke are fantasiosoak ere badirela nahasturatan, nahiz eta lore naturalistagoak ere aurkitzen diren, hala nola **peoniak**, **zitorriak**, **krabelinak**, **iris tulipak**, **mingranak** edo **tipulak**, elkarrekin nahasirik, gurutzurik edota beregain.


Arau orokor moduan, distribuzioak ardatz ordenatu bati jarrai diezaioke, trazu kurbatuez, zuzenez, forma geometrikoez edo “C” formakoez lagundurik.

Alboetako erretauletako eskulturetatik, asko dira estofatuak. Horrelakoak dira irudi hauek: Santa Ana, San Joakim, San Jose, eta Ama Birjina Haurrarekin (San Joserren erretaula), motibo geometriko edo botanikoen estofatu aberatsak dituztenak, edo Santa Teresaren eta Santa Arrosaren tailuak (Andre Maria Doloreetakoaren erretaula), San Migel (San Luis Gonzagaren erretaula), lore txiki batzuk irudikatuak dituen urrezko marradurarekiko hondo argi batean barreiatuak, edo San Ignazio (San Ignazioren erretaula), fantasiatzko animaliekiko landare-sortaz dekoraturiko kasula jantzita.

Erretaula nagusiko **hondo lisoak** oso gune aproposak gertatzen dira motibo estofatuak hedatzeko, irudiak testuinguru baten barruan kokatuz. Irudika ditzakete **barruko espazioak**, neutroak, edo erreferentziatzko marra gutxi batzuk markatzen dituztenak (baldosazko zorua, etab.), gortina irekiek espazio indeterminatu bat agerian uzten dutela, edo are gela-barruak, atea eta eskaillerak dituzten egoitzetako hormak, eta kolomak, gangak eta perspektibatzko arkuak, arkitektura zizelatuen osagari gisa (57. arg.).

Orobat garatzen dira **kanpoko espazioak**, harkaitz, landare, hosto, zuhaitz, erai-kuntza eta abarren irudikapenak. Gainerako motiboetan ikusi dugunez, esgrafiatua marrazkiaren lagun joan ohi da, eta azpimarratu egiten du, zuhaitzen inguruneari jarraituz, enborrak marratuz eta hostoak mugatuz, planoak norabide desberdineko marradurekin kontrastatuz, horma-orriak betez edo zoruko baldosak marra horizontal eta bertikal txandakatuekin edo zirkuluekin indibidualizatuz.



Polikromatzaileak, kasu batzuetan, eszenen konposizioa osatzeko, **atributuak** eta **sinboloak** eransten dizkio, pertsonaia irudikatuak identifikatzeko modua ematen dutenak (Santiago, mantuaren gainean erromes-maskorra pintatua daukala), eta are tailuaren kontzepzioa ere eraberritzen du, eskultoreak kontuan hartu gabeko tokian elementuak erantsiz (Espiritu Santuaren usoa San Estebanen Harrikatzean, eta aingeru-hegoa Deikundean).




29. Dekorazio estofatua.
Decoración estofada.



30. Dekorazio estofatua.
Decoración estofada.



31. Dekorazio estofatua. Loreak.
Decoración estofada. Flores.



32. Urrearen gainean puntzoiez egindako landarezko dekorazioa. San Luis Gonzagaren erretaularen aulkiteria.

Decoración vegetal realizada a punzón sobre el oro. Banco del retablo de San Luis Gonzaga.

– Puntzoia

Puntzoi-lana **metalezko lanabes** ziztagarri batez gauzatzen da. Forma jakin bateko punta bat du akabera, eta gainalde baten gainean sakatzen da, erreferentziako marrazkia hartan inprimatua geratzeko. Operazio hori, eskultura polikromatuan, plano urreztatua-ren gainean gauzatzen da, eta errearen erliebezko eta dardarazko efektuak sortzen dira, bai eta gainalde lisoen eta garautsu edo irregularren arteko kontrasteak ere (58. arg.).

Puntzoi-lanak ugari dira parrokiako erliebe eta eskultoretako dekorazioan. Erretaula nagusian, **puntzoi indibidual biribil** bat identifikatu da, eta **lau puntaz osaturiko** beste bat, kanpoko ertzak biribilduak dituena (59. arg.).

Puntzoiarekin landuriko areak, gehienbat, arropaje estofatuetan daude lokalizatuak, dela gainalde urreztatua betetzen, dela hainbat eratako marrazkiak sortzen, hala nola ezkatadurak, barruan puntuak dituzten erronboak, zirkulu-multzoak, lore txikiak, marra jarraituak, etab. Orobat dekoratzen ditu liburuak, atributuak, xingolak, etab.

San Luis Gonzagaren erretaulan, puntzoiak motibo dekoragarriak sortzen ditu arkitekturako orri lisoetan. Horrela, Sagrarioko bankuan edo atean, polikormatzaileak tenplete baten fatxada landu du idulki baten gainean, edo lore-motibo bat dado baten oinarriaren gainean (32. ir.). Era berean, San Nikolasen erretaulan, erlikiak gordetzen diren bankuko kutxen zenbakiak puntzoi bidez eginak daude.

– Orri lisoetako polikromia

Arrosarioko Ama Birjinaren eta San Nikolasen erretaulaetako irudi batzuk polikromatzeko, kolore liso oso biziak eta tonu pastelak baliatu dira, apur bat ñabartuak, eta

viene acompañada del esgrafiado, que rae las superficies coloreadas y deja ver el oro, dando como resultado una mezcla de colores y brillos dorados (fig. 29-30-31).

En el retablo mayor, el estofado ocupa un **lugar preponderante** dentro de la decoración, invadiendo toda la superficie de figuras y escenas, a excepción, claro está, de las carnaciones de los personajes y de aquellas zonas destinadas únicamente al esgrafiado o dorado.

Las **hojas y flores** ocupan prácticamente la totalidad de los mantos y túnicas de los personajes, y son de gran riqueza. Su representación es variada y generalmente son muy estilizadas, simplificadas o incluso podría decirse que fantasiosas en sus mezclas, aunque también se encuentran flores más naturalistas como **peonías, azucenas, claveles, iris, tulipanes, granadas o cebollas**, mezcladas entre sí, entrelazadas o independientes.

Como norma general, su distribución puede seguir un eje ordenado, ayudándose de trazos curvos, rectos, formas geométricas o en "C".

Gran parte de las esculturas de los retablos laterales están estofadas. Es el caso de las imágenes de Santa Ana, San Joaquín, San José, y Virgen con Niño (retablo de San José), con ricos estofados de motivos geométricos y botánicos, o las tallas de Santa Teresa y Santa Rosa (retablo de Nuestra Señora de los Dolores), San Miguel (retablo de San Luis Gonzaga), con representación de pequeñas flores salpicadas en un fondo claro con rayado de oro, o San Ignacio (retablo de San Ignacio) con casulla decorada de rameado con animales fantásticos.

Los **fondos lisos** de las escenas del retablo mayor constituyen espacios muy adecuados para desplegar motivos estofados, situando las imágenes dentro de un contexto. Pueden representar **espacios interiores**, neutros, o marcando unas pocas líneas de referencia (suelo de baldosa, etc...), con telones abiertos que descubren un espacio indeterminado, o incluso interiores de habitaciones, muros de estancias con puerta y escaleras, y columnas, bóvedas y arcos en perspectiva como complemento de arquitecturas esculpidas (fot. 57).

Igualmente se desarrollan **espacios exteriores**, representación de rocas, plantas, hojas, árboles, construcciones, etc... Como hemos visto en los demás motivos, el esgrafiado acompaña al dibujo y lo subraya, siguiendo el contorno de los árboles, rayando los troncos y delimitando las hojas, contrastando los planos con rajados en distinto sentido, rellenando los panes de muro o individualizando las baldosas del suelo con rayas alternadas horizontales y verticales o círculos.

El policromador, en algunos casos, completa la composición de las escenas añadiendo **atributos y símbolos** que permiten identificar a los personajes representados (Santiago, con la concha de peregrino pintada sobre su manto), incluso reforma la concepción de la talla al añadir elementos allí donde no lo había considerado necesario el escultor (paloma del Espíritu Santo en la Lapidación de San Esteban y ala del ángel en la Anunciación).

– *Punzón*

La labor de punzón se ejecuta mediante un **instrumento metálico** punzante rematado en una punta de forma determinada que se presiona sobre una superficie, que-

erliebean urrezaturiko friso lodiak (60. arg.). San Antonio Paduakoaren eta San Frantzisko Asiskoaren arropajee (San Nikolasen erretaula), kolore marroi zuhailekoak, tonu ilunagoko pikardadura edo txantiloizko pintura bat errezibitu dute, abituen estofa lodia ahalik fidelkien imitatzeke asmoarekin.

– Ordezkoak

Konstituzio sinodalak gorabehera, herritarren debozioak eta naturala imitatzeke grinak eskultura polikromatuan ordezkoak eta elementu erantsiak erabiltzea ekarri zuten. Ordezkorik erabilienak anatomiako edo jantzieta zona jakin batzuei dagozkie, berezko izaeragatik benetako itxurarekin irudikatzen zailenak gertatzen zirenei. Horrela, seinaltatzekoak dira, horien artean, beirazko begiak, ile naturaleko adatsak eta bekainak, orezko hortzak, azazkal naturalak edo, beste maila batean, sokaka, arantzazko koroak, telak, etab.

Andaluzian sarriago badira ere, praktika batzuk asko zabaldu ziren. Esate baterako, **beirazko begien** kasua. Begi-inkrustazioak ohikoak ziren jadanik Egiptoko edo Greziako artean⁴¹. Penintsulako irudigintzan, popularizatu egin ziren XVII eta XVIII. mendeetan, eta, agi danean, Granadako eskola izan lehena horrelakoak erabiltzen.

Begi inkrustatuak beirazkoak edo arrautza-azalezkoak izan zitezkeen. Lehenak, usuagoak, beira gardenezko kasket esferikoak ziren, eta barrutik pintatzen zitzairen irisa eta zuringoa. Bi prozedura desberdini jarraituz egin zitezkeen: puztua, zeinarekin begi esferiko huts bat lortzen baitzen, pinturarako aproposa zena, eta mazizoa, molde bidez egiten zena.

Begiak aurpegian txertatzeko ere bi sistemari jarrai ziezaioketen: ohikoena da pertsonaiaren maskara edo aurpegia burutik bereiztea, bekokian ebakia eginez, atzeko aldean aurpegiarantz irekitzen diren bi zulo eginez, eta haietan begiak ezarriz. Argizariarekin, lakrearekin, igeltsuarekin edo beste eransgarriren batekin eusten zaie begiei.

Beste prozedura aurpegiaren aurrealdetik bi zulo egitea da. Haietan txertatzen eta finkatzen dira begi-globoak, eta orearekin modelatzen dira betazalak eta begiaren kanpoaldea. Praktika hori, erretaula polikromatu batzuetan, tailatu eta gero gauzatu zen, eskultoreak ordezkoa aurreikusi ez zuen tokian⁴².

Erretaula nagusiko eskulturrek ez daukate beirazko begirik. Hala ere, ugari dira parrokiako alboetako erretaulatan. Esate baterako, San Joseren erretaulan (Santa Ana eta Ama Birjina, San Joakim, San Jose, aingerutxoak), Arrosarioko Ama Birjinaren erretaulan (aingeru guardakoa, Tobias eta aingerua, Arrosarioko Ama Birjina, San Isidro), San Nikolasen erretaulan, San Ignazio, Santa Katalina, San Martin (61. arg.) eta San Frantziskorenean, etab. Horien guztien artetik, nabarmentzekoa da San Luis Gonzagaren erretaulako San Migelen begien tonu urdinxka ikusgarria.

41. Arte grekoan, brontzezko eskultura batzuek errezibitu zituzten begi-inkrustazioak, zeinetan zuringoaren imitazioa material zurien bidez egiten baitzen (marmola edo antzekoa), eta irisarena eta begi-niniena hainbat koloretako hariarekin edo beira-orearekin.

42. Retablo de San Juan Bautista de Hernani. Barrio, M., Berasain, I. : op. cit. Lyon, 1999.

dando impresa en ella el dibujo referido. Esta operación, en escultura policromada, se lleva a cabo sobre el plano dorado, creando efectos de relieve y vibraciones del oro, contrastes entre superficies lisas y graneadas o irregulares. Normalmente es la última tarea realizada durante la policromía (fot. 58).

La labor de punzón es abundante en la decoración de los relieves y esculturas de la parroquia. En el retablo mayor se han identificado **un punzón individual redondo** y otro **formado por cuatro puntas**, de bordes exteriores redondeados (fot. 59).

Las áreas trabajadas con punzón se localizan principalmente en los ropajes estofados, bien rellenando la superficie dorada, o creando diversos dibujos, como escamados, rombos con puntos en el interior, grupos de círculos, pequeñas flores, líneas continuas, etc... También decora libros, atributos, galones, etc...

En el retablo de San Luis Gonzaga, el punzón crea motivos decorativos en los paños lisos de la arquitectura. Así en el banco o en la puerta del Sagrario, el policromador ha labrado la fachada de un templete sobre un pedestal o sobre la base de un neto un motivo floral (fig. 32). De igual manera, en el retablo de San Nicolás, la numeración de las cajas del banco donde se guardan las reliquias está realizada mediante punzón.

– *Policromía de paños lisos*

Algunas figuras de los retablos de la Virgen del Rosario y San Nicolás han sido policromadas mediante colores lisos muy vivos y tonos pasteles, ligeramente matizados, y gruesas cenefas doradas en relieve (fot. 60). Los ropajes de San Antonio de Padua y San Francisco de Asís (retablo de San Nicolás), de color marrón pálido, han recibido un salpicado o estarcido en tonos más oscuros con intención de imitar lo más fielmente posible la estofa gruesa de los hábitos.


– *Postizos*

A pesar de las constituciones sinodales, la devoción popular y el afán de imitación del natural llevó a la utilización de postizos y elementos añadidos en escultura policromada. Los postizos más utilizados corresponden a aquellas zonas de la anatomía o de la indumentaria que, por su propia naturaleza, resultan más difíciles de representar de una manera veraz. Así, entre ellos se pueden señalar los ojos de cristal, las pelucas y pestañas de pelo natural, los dientes de pasta, las uñas naturales, o, en otro orden, cuerdas, coronas de espinas, telas, etc...

Aunque más frecuentes en Andalucía, algunas prácticas se divulgaron ampliamente. Es el caso de los **ojos de cristal**. Las incrustaciones de ojos eran ya habituales en el arte egipcio o griego⁴¹. En la imaginería de la península se popularizaron durante los siglos XVII y XVIII, siendo al parecer la escuela granadina la primera en utilizarlos.

Los ojos incrustados podían ser de cristal o cascarilla de huevo. Los primeros, más usuales, consisten en un casquete esférico de cristal transparente, por cuyo inte-

41. En el arte griego, algunas esculturas de bronce recibieron incrustaciones de ojos, donde la imitación del blanco se realizaba mediante materiales de este color (mármol o similar) y la del iris y pupilas con piedras de diversos colores o pasta de vidrio.



33. Arrosarioko Ama Birjinaren mantuaren farfailya. (San Josereren erretaula).
Puntilla del manto de la Virgen del Rosario (retablo de San José).

Arrosarioko Ama Birjinaren eta San Josereren oinetan dauden aingerutxoetan baka-
rrik ikusi da begiak txertaturik dauzkatela, maskararen atzean zulatzearen teknikare-
kin. Hala ere, aihertzen gara pentsatzera ezen aipaturiko gainerako kasuetan ere pro-
zedura bera praktikatu dela, hori baitzen usuena eta ez baitugu inolako pitzaturik edo
galerarik topatu irudietako betazaletan.

Ordezko elementu horien artean, orobat nabarmentzen da, San Josereren erretaulan,
Ama Birjinaren mantuko mendelean, purpuraren gainean dagoen tela urreztatuzko
parpaila (62. arg.). Zeta urdinezko xingola bati josirik doa, eta xingola, berriz, eskul-
turako oinarriari kolaturik doa. Horrela, ezkutuan geratzen da, prestakinezko eta po-
likromiazko geruzengatik (33. ir.).

Azken elementu moduan, **harri** zurixka eta zeharrargi bat aipatuko dugu, San Jo-
seren tunikako goiko aurrealdean inkrustatua (San Josereren erretaula), eta santuaren
polikromia aberatsa osatzen duena.

– Koloreak

Erretaulen polikromiako kontratuetan, orobat azpimarratzen zen koloreen kalita-
tea: finak eta ehoak izan behar zuten, eta, aldi berean, ongi banatuak. San Estebango
parrokiako erretauletan enplegaturiko koloreak **askotarikoak** dira, eta garai hartan
erabili ohi zen gamari dagozkio: zuria, horasta, arrosa, laranja, gorria, berde argia,
berde bizia, berde iluna, urdin argia, urdin bizia, marroia eta beltza.

Kolore opakoak pigmentu dentsuak erabiltzetik ateratzen dira, eta tonu argiak,
berriz, pigmentu zuriak gehituz.

Erretaula nagusian eginiko analisisien arabera, erabilitako pigmentuak ondoko
hauek izan dira:

rrior se pinta el iris y el blanco. Podían realizarse siguiendo dos procedimientos distintos: el soplado, con el que se conseguía un ojo esférico hueco, apropiado para la pintura, y el macizo, realizado por moldeado.

Para la inclusión de los ojos en el rostro se podían seguir también dos sistemas: el más habitual consiste en la separación de la mascarilla o rostro del personaje del resto de la cabeza mediante un corte frontal, haciéndole en su parte posterior dos huecos que abren a la cara e instalando en ellos los ojos, que suelen sujetarse con cera, lacre, yeso u otro adhesivo.

Otro procedimiento consiste en la realización de dos huecos por la parte delantera del rostro, insertar los globos oculares y mantenerlos modelando con pasta los párpados y la parte exterior del ojo. Esta práctica se llevó a cabo en algunos retablos policromados con posterioridad a la talla, donde el escultor no había previsto el postizo⁴².

Las esculturas del retablo mayor carecen de ojos de cristal. Sin embargo son frecuentes en los retablos laterales de la parroquia, por ejemplo en el retablo de San José (Santa Ana y la Virgen, San Joaquín, San José, angelitos), retablo de la Virgen del Rosario (ángel de la guarda, Tobías y el ángel, Virgen del Rosario, San Isidro), retablo de San Nicolás, de San Ignacio y San Francisco Javier, de Santa Catalina y San Martín, etc... destacando entre todos ellos la espectacular tonalidad azulada de los ojos de San Miguel del retablo de San Luis Gonzaga (fot. 61).

Únicamente en los angelitos a los pies de la Virgen del Rosario y San José, se ha podido observar la inclusión de los ojos, con la técnica del excavado posterior de la mascarilla. Sin embargo, nos inclinamos a pensar que en los demás casos mencionados se ha practicado el mismo procedimiento, por ser el más usual y no haber encontrado ningún tipo de grieta o pérdida en los párpados de las figuras.

Dentro de estos elementos postizos destaca también **la puntilla** de tela dorada sobre mixtion en la orla del manto de la Virgen en el retablo de San José (fot. 62). Va cosida a una cinta de seda azul que a su vez va encolada al soporte de la escultura, de manera que permanece oculta por las capas de preparación y policromía (fig. 33).

Como último elemento citaremos una **pedra** blanquecina traslúcida incrustada en la zona frontal superior de la túnica de San José (retablo de San José), que completa la rica policromía del santo.

– Colores

En los contratos de policromía de los retablos se hacía también hincapié en la calidad de los colores, que debían ser finos y molidos, a la vez que bien distribuidos. Los colores empleados en los retablos de la parroquia de San Esteban son **variados**, y corresponden a la gama utilizada habitualmente en la época: blanco, amarillento, rosa, anaranjado, rojo, verde claro, verde intenso, verde oscuro, azul claro, azul intenso, marrón, negro.

42. Retablo de San Juan Bautista de Hernani. Barrio, M., Berasain, I.: op. cit., Lyon, 1999.

zuria: berun-zuria, purua edo kaltzio-karbonatoarekin nahastua.

laranja: minioa, berun-zuriarekin nahastua.

gorria: bermiloia berun-zuriarekin nahastua, eta, batzuetan, lurkiekin.

berdea, kobre-klorurozko pigmentua, kaltzio-karbonatoarekin nahastua.

urdina, indigoa berun-zuriarekin nahastua, beste tonu urdin batentzako oinarri moduan, esmaltez, berun-zuriz eta lurkiz osatua, edota indigoa berun-zuriarekin eta kaltzio-karbonatoarekin nahastua.

beltza, egur-ikatzaren beltza, kaltzio-karbonatoarekin eta lurkiekin nahastua, proportzio txikian.

Aglutinagarriez den bezainbatean, olio lehorgarria detektatzen da pinturazko eta animali jatorriko kolazko geruza guztietan, igeltsuzko aparailuan eta boloan.

– *Haragiztadurak*

Horrela esaten zaio agerian geratzen diren gorputz-ataletako pinturari: **aurpegia, oinak, eskuak, soinak,** etab. Horien elaborazioa izan ohi da pintatzaile urreztatzailearen eginkizunik garrantzitsuenetako bat. Horien aparailua meheagoa izan ohi da, eskulturako bolumen tailatuak ez lausotzeko, eta horien bukaerak markatzen du polikromatzeko prozesuaren amaiera.

Erliebeen eta tailuen pinturaren eboluzioan, haragiztadura matea distiratsuarekin txandakatu izan da. Lehenbizikoa errealistagoa da, eta naturalaren kopian ñabardura handiagoak egiteko aukera ematen du. Bigarrenak distira berezi bat ematen dio, eta segidako hainbat operazio eskatzen ditu.

San Estebanen erretauletako haragiztadurak estudiatzea lan konplexua da, ezen ia guztiek errezibitu dituzte geroztikako interbentzioak, jatorrizko polikromia ezkutatzen eta hutsaltzen dutenak.

Horrela, erretaula nagusian, haragiztaduren multzo guztia koloreberritua izan da. Atzematearen erretaulan San Markoren oin ezkerreko eraztun-eritik eta San Pedroren kopetatik hartutako haragiztaduren bi mikrolaginen analisiak datu berak ematen dituzte:

- Haragiztadurazko lehen geruza bat, jatorrizkoa, aldi berean bi estratuz osatua: bata horasta arrosakara, berun-zuriz eta bermiloizko aztarnez osatua (20-35 mikra), bestea arrosakara-moraila, berun-zuriz, bermiloiz, lur-aztarnaz eta azuritaz osatua (35-40 mikra).
- Eta bigarren haragiztadura bat, koloreberritzeari dagokiona, bi estratutan: zurixka, berun-zuriz, kaltzio-karbonatoz eta bario-zuriz osatua (30-50 mikra), arrosakara, berun-zuriz, kaltzio-karbonatoz, bario-zuriz eta bermiloiz osatua (30-50 mikra).

Polikromiako bi estratuen artean, kola isolagarritzko geruza bat aplikatu da, laginetako batean nahiko lodiera handia duena.

Los colores opacos se obtienen a base de utilizar pigmentos densos, obteniendo los tonos claros por la adición de pigmentos blancos.

Según los análisis efectuados en el retablo mayor los pigmentos empleados han sido los siguientes:

blanco: albayalde, puro o mezclado con carbonato cálcico.

anaranjado: minio, mezclado con albayalde.

rojo: bermellón mezclado con albayalde, y a veces con tierras.

verde, pigmento de cloruro de cobre mezclado con carbonato cálcico.

azul, índigo mezclado con albayalde como base para otro tono azul compuesto de esmalte, albayalde y tierras, o índigo mezclado con albayalde y carbonato cálcico.

negro, negro de carbón vegetal mezclado con carbonato cálcico y tierras en baja proporción.

En cuanto a los aglutinantes se detecta el aceite secante en todas las capas de pintura y cola de origen animal en el aparejo de yeso y en el bol.

– Carnaciones

Se denomina así la pintura de las partes del cuerpo que permanecen descubiertas: **rostro, pies, manos, torsos,** etc... Su elaboración figura entre las tareas más importantes del pintor-dorador. Su aparejo habitualmente es más fino, para no empañar los volúmenes tallados de la escultura, y su acabado suele marcar el final del proceso policromado.

En la evolución de la pintura de relieves y tallas se ha alternado la encarnación mate con la pulida. La primera es más realista, y permite mayores matizaciones en la copia del natural. La segunda aporta un brillo especial, y requiere una serie de operaciones sucesivas.

El estudio de las carnaciones de los retablos de San Esteban es complicado, ya que casi en su totalidad han recibido intervenciones posteriores que ocultan y desvirtúan la policromía original.

Así, en el retablo mayor el conjunto de las carnaciones ha sido repolicromado. El análisis de dos micromuestras proporciona el mismo resultado:

- Una primera capa de carnación, original, formada a su vez por dos estratos:
 - uno amarillento rosado, compuesto por albayalde y trazas de bermellón (20-35 micras); otro rosado-violáceo, compuesto de albayalde, bermellón, trazas de tierra y azurita (35-40 micras).
- Y una segunda carnación, correspondiente a la repolicromía, en dos estratos:
 - blanquecino, compuesto por albayalde, carbonato cálcico y blanco de bario (30-50 micras); rosado, compuesto por albayalde, carbonato cálcico, blanco de bario y bermellón (30-50 micras).

Haragiztadurak koloreberritzean pintura-geruzetan bario-zuria erabili izanak interbentzioa XIX. mendetik aurrera datatzeko bidea ematen digu⁴³. Parrokiako artelanen multzo guztia konpontzeko eta egunean jartzeko kanpainaren bat izan behar zuen, ezen pintura-estratu bera identifika daiteke San Joseren, Arrosarioko Ama Birjinaren eta San Nikolasen erretauletako tailuetan.

Kolore-geruza hori, gaur egun ikus daitekeena, ez da kalitate handikoa, eta oso pinzelada lodia eta bistakoa ageri du. Oro har, besoetan, oinetan eta lepoetan, **zainak** urdinez seinalatuak datoz, errealismozko efektu handiagoa ematearren; batik bat, gizonen irudietan. Aurpegietan, **masailak** arinki gorrixkatuak ageri dira, eta, bizarrak ez duten pertsonaia gizonezkoetan, **biboteko eta bizarreko** itzalezadura grisaxka ikusten da. **Bekainak, betileak eta irisa** pinzelada marroi, beltz eta gorriekin markatuak daude, eta zenbait ñabardura dauzkate belaunek, orkatilek eta eskumuturrek.

Santa Katalinaren eta San Martinen jatorrizko haragiztadurak lisoak eta leunduak dira, eta distira karakteristikoko bat ematen die, kalitate handiko polikromia bat osatzen duena.

Estiloa

Oiartzungo erretauletako polikromiaren analisiak, eskulturaren kasuan bereziki, badu berekin halako konplexutasun bat, hainbat faktorerengatik. Lehenik eta behin, tailuetako polikromietatik asko ez datoz bat kokatuak dauden erretauletako arkitekturaren estiloarekin (erretaula nagusian eta Santa Katalinaren eta San Martinen erretaulatan izan ezik). Bigarrenik, irudi batzuek "modernizatze" interbentzio erabatekoak edo partzialak jasan dituzte moda-aldaketengatik, hala nola Arrosarioko Ama Birjinaren mantuak edo San Joseren mantuaren ifrentzuak. Azkenik, polikromiak egin diren urteak trantsizioko garaietakoak dira, forma tradizionalak eta estilo berriak batera bizi zirenekoak.

Polikromia barrokoa banatzen den hiru faseetatik⁴⁴ (naturalaren pintura, distentsioko pintura eta pintura rococo edo txineskoa), azken biak ikusten ditugu gauzatuak erretaula horietan.

Distentsioko pinturaren barruan sar genitzake San Luis Gonzagaren erretaula, Doloreetako Ama Birjinarena, San Martinena, Santa Katalinarena eta erretaula nagusia. Garai horren ezaugarria da urreztaduraren eta kolorearen arteko alternantzia bilatzea, zenbait formularen bidez lortuko dena. Horietatik lehena, motibo zizelatuetan edo tailatuetan kolorea kontzentratzea da. Horrela, polikromatu egiten dira kapitelak, koloma-fusteak, kartelak, floroiak eta gainerako elementu dekoragarriak, zona urreztatuekin kontraste nabaria eginez. Horrelakoak dira San Luisen eta Doloreetako Ama Birjinaren erretaulak, XVII. mendeko azken urteetan polikromatuak, zeinetan suma

43. Barita edo zuri finkoa 1778an gomendatu zen lehenbiziko aldiz pigmentu moduan, baina ez dirudi 1810-1820 baino lehen erabili denik (Artists pigments, V 1, 1986). Marisa González-ek emandako datuak.

44. Hemen darabiltzagun garaiketzea eta terminologia Pedro Echeverría Goñik sortuak dira, gure herrialdeko polikromiaren estudioetan aitzindari izan denak. Vélez Chaurrik eta Bartolomé bigarren faseari "argi eta itzalena" deitzen diote (Vélez Chaurri y Bartolomé, F.: op. cit. Miranda de Ebro 1998, 9-10 orr.). Zorrozuak garai horiei beroriei polikromia kontrarreformista, barrokoa eta rococo deritze (Zorrozu, J.: op. cit, Bilbo, 1998, 174-175).

Entre los dos estratos de policromía se ha aplicado una capa de cola aislante, que en una de las muestras tiene un espesor considerable.

El uso de blanco de bario en las capas pictóricas de la repolicromía de las carnaciones nos permite fechar la intervención a partir del siglo XIX⁴³. Debió tratarse de una campaña de reparación y puesta al día del conjunto de las obras de arte de la parroquia, ya que el mismo estrato pictórico es reconocible en las tallas de los retablos de San José, Virgen del Rosario y San Nicolás.

Esta capa de color, actualmente visible, no es de gran calidad, y presenta una pincelada muy gruesa y evidente. En general, en brazos, pies y cuellos, las **venas** vienen señaladas en azul para dar mayor efecto de realismo, principalmente en las figuras masculinas. En los rostros, las **mejillas** aparecen levemente sonrosadas y en aquellos personajes masculinos rasurados, se observa el sombreado grisáceo del **bigote y barba**. Las **cejas, pestañas e iris** se marcan con pinceladas marrones, negras y rojas y existen diversas matizaciones en rodillas, tobillos, y muñecas.

Las carnaciones originales de Santa Catalina y San Martín son lisas y pulidas, aportando un lustre característico que completa una policromía de gran calidad.

Estilo

El análisis de la policromía de los retablos de Oiartzun entraña, especialmente en el caso de la escultura, cierta complejidad, debida a diversos factores. En primer lugar gran parte de las policromías de las tallas no se corresponden con el estilo de la arquitectura de los retablos en los que están ubicadas (salvo en el caso del mayor y los de Santa Catalina y San Martín). En segundo lugar, algunas imágenes han sufrido intervenciones totales o parciales de “modernización” por cambios de moda, como es el caso del manto de la Virgen del Rosario o el envés del manto de San José. Por último, los años durante los cuales se han realizado las policromías pertenecen a periodos de transición en los que cohabitan formas tradicionales y nuevos estilos.

De las tres fases en las que se divide la policromía barroca⁴⁴, pintura del natural, pintura de distensión y pintura rococó o chinesca, encontramos plasmadas en estos retablos las dos últimas.

Dentro de la pintura de distensión podríamos englobar los retablos de San Luis Gonzaga, Virgen Dolorosa, San Martín, Santa Catalina y Mayor. Este período se caracteriza por la búsqueda de la alternancia entre el dorado y el color, lo que se conseguirá mediante varias fórmulas. La primera de ellas consiste en la concentración del

43. La barita o blanco fijo se recomendó por primera vez como pigmento en 1778, pero no parece haberse usado antes de 1810-1820. Datos facilitados por Marisa Gómez González.

44. Utilizamos la periodización y terminología acuñada por Pedro Echeverría Goñi, uno de los pioneros en los estudios de policromía en nuestro país. Vélez Chaurri y Bartolomé denominan a la segunda fase como “de luces y sombras” (Vélez Chaurri y Bartolomé, F.: op. cit., Miranda de Ebro, 1998, pp. 9-10). Zorroza denomina a estos mismos periodos como policromía contrarreformista, barroca y rococó (Zorroza, J.: op. cit, Bilbao, 1998, pp. 174-175).

baitaitezke aurreko etapako zantzuak, naturalaren pintura zeritzonekoak⁴⁵. Horrela, arkitekturako plano lisoetan, ugariago baitira barroko lehen etapan, landarezko motiboak garatzen dira, Errenazimentuko forma fantastikoak eta groteskoak ordeztzen dituztenak. Aldakuntza horrek, Trentoko Kontzilioko xedapenen fruitu denak, landarezurtoinak erabiltzea ekarriko du berekin, kurba inguratzaileetarako (kiribilak) joera dutenak eta, gauden datetan, lodiera garrantzitsua dutenak.

“Distentsio” hori erdiesteko beste era bat arkitektura bakar eta erabat urreztatua- ren eta eszena eta eskultura polikromatuen arteko kontrastearen bidez gertatzen da. Tankera horren adibide garbiak dira erretaula nagusia, Santa Katalinarena eta San Martinena. Obra horiek, bestalde, hurrengo etapako ezaugarriak aurreratzen dituzte.

Kristo Santuaren, San Joseren, Arrosariko Ama Birjinaren eta San Nikolasen kaperako aldareak barrokoan erabilitako polikromiaren hirugarren fasearen barruan kokatzen dira, Rococo edo Txineskoa izenekoan. Erretaulako arkitekturak guztiz urreztatua izaten jarraitzen du, baina zenbait eskulan egiten dira haren baitan, kontrasteak sortzearen eta homogeneotasuna haustearren. Efektu horiek, batik bat, urre txartatua eta urre matea txandakatzearen bidez lortzen da, eta, kasu batzuetan, korladura koloreztatuak aplikatzearekin ñabartzen dira. Asmo berarekin garatzen dira zizeladurak (ikus egiteko teknika), eta argi-itzalen sentsazioak lortzen dira gainalde urreztatuan.

Eskulturak eta erliebeak polikromia barroko fase horietara beretan moldatzen dira, nahiz eta, sarritan, estilozko desadostasunak ageri dituzten barnean hartzen dituen arkitekturari buruz. San Luisen eta Doloreetako Ama Birjinaren erretaulatan, eskulturrek arkitektura baino geroagoko polikromia ageri dute. Horrela, San Migel (San Luisen erretaula) polikromia nabarmenki rococo batekin dekoratua dago; gainerako irudiak, berriz, gustu neoklasiko bati dagozkio⁴⁶. Doloreetakoaren aldarean, arropajeen dekorazioak rococo estiloko formak ematen ditu erakustera....

Erretaula nagusiko erliebe eta tailuetako polikromiak ere rococo estiloko formak iragartzen ditu. Landare-sorta tradizionalaz gain, loreak agertzen hasten dira, pertsonaia askoren jantziak pikardatzen dituztela (eta ez Ama Birjinarenak bakarrik). Estanpa-lanak agertzen dira loreetan eta friso batzuetan, eta nitxoetako hondoak, kasu batzuetan, jadanik txineskoak diren formekin zizelatuak daude, sareta, apain-orrizi eta palmekin.

San Joseren eta Arrosarioko Ama Birjinaren erretaulatan, batera ageri dira bi estilo polikromo. Alde batetik, San Joseren, Santa Anaren eta San Joakimen irudiak gaineztatzen dituen pintura, kronologiaz arkitekturako polikromia baino lehenagokoa, eredu rococo nabarmenak dituena (Birjina Haurraren tunika), edo arinki iradokiak (Santa Anaren edo San Joseren mantua), distentsioko garaira lehengoratzen gaituzten landare-sortak (San Joakimen eta Santa Anaren tunikak). Bestetik, arkitekturaren garai bereko interbentzio bat, zeinetan jadanik erabiltzen baitira “oihal naturalak”, kolore lauak eta friso urreztatu eta zizelatuak elementu rococoekin txandakatuz, hala nola

45. Zorrozuak ohikotzat jasotzen du horrelako dekorazioak mantentzea, berez naturalaren pinturari dagozkionak, bigarren periodo horretako lehen partean, Bizkaian. Zorrozu, J.: op. cit, Bilbo, 1998, 174 or.

46. Santa Barbararen eta San Luisen kasuan, artisauesku batek gauzatuak.

color en los motivos esculpidos o de talla. De manera que se policroman capiteles, fustes de columnas, cartelas, florones y demás elementos decorativos, en claro contraste con las zonas doradas. Es el caso de los retablos de San Luis y Virgen Dolorosa, policromados en los últimos años del siglo XVII, donde se observan ciertas reminiscencias de la etapa precedente denominada pintura del natural⁴⁵. Así, en los planos lisos de la arquitectura, más abundantes en la primera etapa del barroco, se desarrollan motivos vegetales que sustituyen a las formas fantásticas y grutescos del renacimiento. Este cambio, fruto de las disposiciones del Concilio de Trento, se traducirá en el uso de tallos vegetales con tendencia a curvas envolventes (roleos) y que, en las fechas en las que nos encontramos, son de un importante grosor.

Otra forma de alcanzar esta “distensión” se produce mediante el contraste entre la arquitectura única y totalmente dorada y las escenas y esculturas policromadas. Claro ejemplo de esta modalidad son los retablos mayor, de Santa Catalina y San Martín, obras que, por otra parte, anticipan características de la etapa siguiente.

Los altares de la Capilla del Santo Cristo, San José, Virgen del Rosario y San Nicolás se encuadran dentro de la tercera fase de policromía utilizada en el barroco denominada Rococó o Chinesca. La arquitectura del retablo sigue siendo totalmente dorada, pero se realizan diversas labores en el mismo a fin de crear contrastes y romper la homogeneidad. Estos efectos se logran principalmente mediante la alternancia de oro bruñido y oro mate, matizados en algunos casos con la aplicación de corlas coloreadas. Con el mismo propósito se desarrollan los cincelados (ver técnica de realización), consiguiendo sensaciones de luces y sombras en la superficie dorada.

Las esculturas y relieves se adaptan a estas mismas fases de policromía barroca, si bien a menudo muestran desacuerdos estilísticos con respecto a la arquitectura que los alberga. En los retablos de San Luis y Virgen Dolorosa, las esculturas presentan una policromía posterior a la de la arquitectura; así San Miguel (retablo de San Luis) está decorado con una policromía claramente rococó, mientras que las demás imágenes corresponden a un gusto neoclásico⁴⁶. En el altar de la Dolorosa la decoración de los ropajes apunta formas del rococó.

La policromía de los relieves y tallas del retablo mayor anuncia, también, formas rococós. Además de los tradicionales rameados, comienzan a aparecer las flores salpicando las vestiduras de muchos personajes (y no únicamente las de la Virgen). Surgen labores de estampado en flores y algunas cenefas y los fondos de las hornacinas están cincelados con formas que en algunos casos son ya chinescas, con enrejillados, peinetas y palmas.

En los retablos de San José y Virgen del Rosario coexisten dos estilos policromos. Por una parte, la pintura que recubre las figuras de San José, Santa Ana y San Joaquín, anterior cronológicamente a la policromía de la arquitectura, con modelos rococós evidentes (túnica de la Virgen Niña) o levemente insinuados (manto de Santa Ana

45. Zorrozueta recoge como habitual el mantenimiento de este tipo de decoraciones propio de la pintura del natural en la primera parte de ese segundo periodo en Bizkaia. Zorrozueta, J.: op. cit, Bilbao, 1998, p. 174.

46. En el caso de Santa Bárbara y San Luis ejecutados por una mano artesanal.

apain-orraziak eta arroakaiak, lengoia neoklasikoetaranzko trantsizioa adierazten digutenak. Horrelakoak dira Aingeru Guardakoa eta San Rafael Arkanjelua. Interbenzio honetan bertan, “modernizatu” egin ziren Ama Birjinaren irudia –mantua kolore lauekin koloreberritu baitzioten– eta San Joserena –tratamendu bere errezibitu baitzuen berearen ifrentzuan–. Kolore lisoen eta zizelaturiko friso urreztatuen (silueta ilunean eginak, azpimarratzeko) estetika horri berorri dagozkio San Nikolasen erre-
taulako irudiak.

San Ignazioren eta San Frantzisko Xabierkoaren erretauletan, eskultoretako eta arkitekturako polikromiak garai berekoak dira. Tela-ereduek Madrilgo edo Valentziako Errege Fabriketako telenak imitatzen dituzte, baina ez darraizkie eredu zurrunei, eta motiboak era guztietako loreekin eta elementu fantastiko batzuekin salteatuak ageri dira (San Ignazioren kasula...).

VI kapitulu: KONTSERBAZIO MODUA

o San José) y rameados que nos retrotraen al periodo de distensión (túnicas de San Joaquín y Santa Ana). Por otra, una intervención contemporánea a la de la arquitectura, en la que se utilizan ya los "paños naturales", alternando colores planos y cenefas doradas y cinceladas con elementos rococós como peinetas y rocallas, que nos hablan de transición hacia lenguajes neoclásicos. Es el caso del Ángel de la Guarda y del Arcángel San Rafael. En esta misma intervención se "modernizaron" las imágenes de la Virgen -a la que se repolicromó el manto con colores planos- y San José -que recibió el mismo tratamiento en el envés del suyo-. A esta misma estética de colores lisos y cenefas doradas cinceladas (silueteadas en oscuro para realzarlas), corresponden las figuras del retablo de San Nicolás.

En los retablos de San Ignacio y San Francisco Javier las policromías de escultura y arquitectura son contemporáneas. Los modelos de telas imitan a las de las Reales Fábricas de Madrid o Valencia, pero no siguen patrones rígidos y los motivos se presentan salteados con todo tipo de flores y con algunos elementos fantásticos (casulla de San Ignacio).

VI kapituluua: KONTSERBAZIO MODUA

San Juan) y de otros que son anteriores al período de dominación española de San Juan y San Rafael. Por otra parte, también corresponden a la de la importancia es, en lo que se refiere a los "pueblos indígenas", a las ruinas de edificios de adobe y construcciones de adobe con decoración como pinturas y esculturas, que son restos de civilizaciones de lenguas aztecas. En el caso del Ángel de la Cuarta y del Ángel San Rafael. En esta misma conservación se "conservaron" los edificios de la Virgen - a la que se refiere con el nombre de "cultura planar" - y San Juan - que muestra el mismo tratamiento en el caso del siglo. A esta misma cultura de cultura local y cultura de todas las civilizaciones indígenas en el caso de las civilizaciones indígenas del estado de San Juan.

En los edificios de San Ignacio y San Francisco Javier las pinturas de los siglos y similitudes con construcciones. Los modelos de estas construcciones de San Juan, San Rafael de Madrid y Valencia, pero en algunas pinturas y los edificios se parecen a los de San Juan y San Rafael y San Juan y San Rafael.

Capítulo VI: ESTADO DE CONSERVACIÓN

“Sortie des mains de son créateur, l'œuvre d'art qui a été conçue dans un monde idéal, s'incarne en quelque sorte et commence alors pour elle cette condition terrestre qui va altérer, mutiler, masquer, parfois travestir les données originales jusqu'à les rendre méconnaissables.” G. Bazin in Comprendre, sauver, restaurer, Le petit journal des grandes expositions. Réunion des musées nationaux, n° 67, 1978.

Sarrera: Artelanak hondatzearen arrazoi nagusiak

Urteen poderioz, artelaneak hainbat eta hainbat aldaketa izaten dituzte eta aldaketa horien eraginez kalteak sortzen dira eta jatorrizko egoeratik zeharo aldentzen dira.

Mota desberdineko arrazoiak dira aldaketa horien sortzaile; batzuetan, artelanaren berezko materiala da arrazoietakoa bat eta, odorioz, prozesu naturala eta ezinbestekoa da. Kanpoko ere faktoreak izan daitezke beste faktorea: ingurumenarekin zerikusia duten gertaerak eta gizakiaren interbentzioak sortu dituenak.

Artelanei kalte handia eragiten dieten arrazoiaren artean honakoak dira nagusienak:

- Hezetasuna eta tenperatura. Bi parametro horien eragina, batez ere hezetasun erlatiboarena, erabatekoa da artelanak kontserbatzeko orduan. Bat-bateko aldaketek eta muturreko baldintzek konponezinak diren kalteak eta aldaketak sor ditzakete (zura bezalako material higroskopikoetan pitzadurak, kapa piktorikoko igeltsua handitzea, tentsioak eta hausturak...) eta baita kaltea eragin dezaketen beste hainbat fenomeno sortzen lagundu ere.
- Euriaren higaduraren eraginez urak kalte handiak egin ditzake: kapilaritateak sortutako orbainak eta gatzak sortzea, paramentuaren haustura eta handitzea, eta izotzak sortutako harri eta mosaikoak (ura izotz bihurtzen denean bolumena %10 handitzen da, gutxi gorabehera.).
- Argia, artelana ondo ikusteko eta gozatzeko ezinbestekoa dena, degradazio-iturri izan daiteke. Argi naturalaren eta artifizialaren izpien artean izpi infragorriak eta ultramoreak daude eta horiek ere artelanak kaltetzaren eragile dira. Izpi ultragorriek tenperatura handitzea eragiten dute, batez ere, eta ultramoreek, berriz, propietate kimiko arriskutsuak dituzte eta artelanen materialetan (barnizak, oihalak, pigmentua) eta zaharberritzeko erabiltzen direnetan (erretxina sintetikoak) kaltea sortzen duten hainbat aldaketa kimikoen katalizatzaileak dira.
- Eragile mekanikoak: haizea edo dardara.

“Sortie des mains de son créateur, l'œuvre d'art qui a été conçue dans un monde idéal, s'incarne en quelque sorte et commence alors pour elle cette condition terrestre qui va altérer, mutiler, masquer, parfois travestir les données originales jusqu'à les rendre méconnaissables. » G. Bazin in Comprendre, sauver, restaurer, Le petit journal des grandes expositions. Réunion des musées nationaux, n° 67, 1978.

Introducción: Principales causas de deterioro en las obras de arte

Las obras de arte, a lo largo del tiempo, sufren una serie de transformaciones que contribuyen a su deterioro, alejándolas irreversiblemente de su estado original.

Estas alteraciones son provocadas por una serie de factores de diversa índole; algunos son propios de los materiales constitutivos de la obra de arte y por lo tanto es un proceso natural e inevitable; otros son exteriores, y pueden abarcar desde factores medioambientales hasta la intervención del hombre.

Dentro de las causas de deterioro que afectan profundamente a las obras de arte podríamos distinguir las siguientes:

- Humedad y temperatura. La influencia de estos dos parámetros, principalmente de la humedad relativa, es decisiva en la conservación de las obras de arte. Las variaciones bruscas y las condiciones extremas pueden causar por sí solas daños y deformaciones irreversibles (alabeamientos o grietas en materiales higroscópicos, como la madera, dilataciones de los yesos constitutivos de la capa pictórica, tensiones y fracturas, etc...) así como contribuir a la aparición de otros fenómenos de deterioro.
- El agua puede provocar daños mediante la acción erosiva de la lluvia, así como manchas y sales por capilaridad, y fracturas y dilataciones de paramentos, piedras y mosaicos debidos al hielo (la transformación del agua en hielo implica un aumento de volumen del 10% aproximadamente).
- También la luz, indispensable para la contemplación y disfrute de la obra de arte, puede ser una fuente de degradación. Las radiaciones luminosas visibles tanto naturales como artificiales, contienen una cierta cantidad de radiaciones infrarrojas y ultravioletas, responsables de ciertos daños. Los infrarrojos provocan principalmente aumento de temperatura, mientras que los rayos ultravioletas poseen peligrosas propiedades fotoquímicas que sirven de catalizador para numerosas reacciones químicas que causan el deterioro de los materiales constitutivos

- Izadiaren hondamendia: lurrikarak edo uholdeak.
- Eragile kimikoak. Artelanen materialarekin erreakzioak sortzen dituzte. Erreakzio horiek naturalak (oxigenoa, ura, anhidrido karbonikoa) edo artifizialak izan daitezke. Gizakiaren jardueren prozesuek sortutako produktuak izan daitezke erreakzio artifizial horiek (berogailuei edo kutsadurari esker sortutako erreakzioak, kanpoan gorde diren monumentuentzat oso kalte larriak sortzen dituztenak, askotan).
- Eragile biologikoak. Mikroorganismoen, bakterien, onddoen, algen, likenen eta beste hainbat landareren garapenak, intsektu xilofagoen eta animalien erasoak (hegaztiak, karraskariak) sortutakoak.
